



ARGIA

BANAKETA KOOPERATIBAK

Lan duina pedal gainean dator

22-27. orriak

#2.733 | 2021 / 05 / 23 | 3,90 €



**'Nord Stream 2'
gasbideak gerra hotza
berotu du European**

10 | NET HURBIL



**Zarauzko gaztetxearen
etorkizuna
bidegurutzean**

30 | HERRI MUGIMENDUA



**Angel Katarainen
iraganeko kantak,
argitara**

42 | ELKARRIZKETA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #263

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



MENDIZALETASUNA

MODA BERRIEN ERRITMOAN

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DOS POR DOS
AZALAREN MONTAJEA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | DAVID BOU
- 18 | MAIALEN BERASATEGI
- 19 | MAIALEN ARTEAGA
- 19 | UXUE APAOLAZA
- 20 | JOXERRA AIZPURUA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 37 | DENBORAREN MAKINA
- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: MARTA BELLVEHÍ
- 54 | BERANDUEGI



42 | ANGEL KATARAIN
elkarrizketatu du Kepa Matxainek, ordizarrak 1983-1993 urteen artean sortu zituen kantuen bilduma kaleratu berri den honetan. Besteak beste, kanpora edo barrura begiratzeaz, jarrera irekia izateaz eta sortzeko beharrezko den ezegonkortasunaz dihardu inspiragarri ere baden pieza honek.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL
“Nord Stream 2” gasbidearekin Europa katramilatuta dago Mosku eta Washingtonen lehian
Pello Zubiria

12 | PERTSONAIA | MARTA TRIVI
“Emakumeak nahita kanporatu ziren bideo-jokoen ekoizpen prozesutik”
Miren Artetxe

22 | EKONOMIA
Kooperatiba bat, bi gurgil eta duintasuna
Itsaso Zubiria

28 | ELIKADURA | ZERO ZABOR HOZKAILUA
Eskolan jan ez dutena daramala edonork etxera
Estitxu Eizagirre

30 | GIZARTEA | PUTZUZULO GAZTETXEA
Borrokatutako alternatibaren kontakizuna
Miren Osa

34 | EUSKARA
Urtez urte ontzen Arabako Errioxan
Ruben Sanchez / Arabako Alea

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea

Lehendakaria
Onintza Irureta

Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Ixone Arana, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Oihane Arretxea, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia, Eneko Arzuaga

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012

ISSN
0213-909X

Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefona
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaitza taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugun.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Borreroaren eskubidea?

Hamasek ekoiztutako misilak eta munduko laugarren potentzia militarra eta nuklearra parez pare irudietan. Israelek bere burua "terroristez babesteko eskubideaz" aipuren bat. Ondoren, albistegia politikoki zuzen amaitze aldera, bakerako deia egin "bi aldeei". Okupatzailea eta okupatua, kolonizatzailea eta kolonizatua berdintzen dituen kontakizunak nahita ezkutarazten du, "gatazka" edo "gerra" kontzeptuen atzean, Palestinaren eta Israelen arteko auziaren jatorria: sionismoa. Proiektu kolonial bat, Apartheid sistemikoaren bitartez Palestina eta haren inguruko lur, ondasun eta jendeak menperatzea helburu duena. Hizkuntzak estal dezake errealitatea, baina zapaldutako herri bakar batek historian inoiz ez dio erresistentziari uko egin. Irudian, Israelgo soldadu bat Gazako mugatik gertu ostiralean.

 A. COHEN / REUTERS  AXIER LOPEZ





**JOAQUIN BELTRANEN GORPUA
AURKITZEKO LANAK BERTAN
BEHERA UTZI DITU JAURLARITZAK**



**15 HILABETEZ DISPOSITIBO
ZABAL BATEK AHALEGIN
HANDIA EGIN DU
DESAGERTUTAKO BI PERTSONAK
AURKITZEKO. SOLOUZEREN
KASUAN, ARRAKASTA IZAN
DU, BAINA EZ DA GAUZA BERA
GERTATU BELTRANEKIN.
GOIAN BEGO**

Josu Erkoreka, Jaurlaritzako
Segurtasun sailburua



**BESTE KAPITULU TRISTE BAT,
HASIERAKO KUDEAKETA
PENAGARRIAN. BELTRAN EZ
AURKITZEA PORROT HANDIA
DA, BAI SENIDEENTZAT,
LAGUNENTZAT EDO INGURUKO
HERRITARRENTZAT. PERTSONA
BAT LUR AZPIAN GERATZEA
EZIN DA ERANTZUKIZUN
POLITIKORIK GABE GERATU**

Zaldibar Argitu plataforma



**LATZA! HAU AL DA DUGUN
GOBERNUAK HERRITARREKIKO
DUEN SENTSIBILITATEA?**

@Amazabal



**EZ DADILA ERREPIKATU, EZ
DADILA AHAZTU ETA EZ DADILA
ERANTZULERIK GABE GERATU.
HERRI AURRERATU BATEK EZIN
DU HALAKORIK ONARTU**

@bzarrabeitia



IRUNGO UDALA

Udaltzain izateko euskara eskatzea, diskriminatzailea?

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Irungo udaltzain izateko 2017ko oposaketetan eskatzen zen euskara jakitea, baina euskara ez dakitenenganako diskriminatzailea dela iritzita, deialdia baliogabetu du EAEko Auzitegi Nagusiak. Diskriminazioa euskaldunok jasaten duguna dela salatu du herritar ugari, euskaraz artatuak izateko eskubidea beste behin ere bermatuko ez zaigula jakinda.

Epailearen ebazpenak dio herritarrok badugula administrazioarekin euskaraz aritzeko eskubidea, baina horretarako ez dutela udaltzain guztiek euskaraz zertan jakin, nahikoa dela “jendeari arreta egiten dion udaltzainetakoren batek” eta “bikotean doazen udaltzainetako batek” euskaraz jakitea. Epaileak argitu ez duena da nola bermatuko duen udaltzainen artean euskaraz dakiten profesionalak egotea, deialdian ez bada eskaera hori egiten; nola bermatuko duen kalean dagoen herritar euskaldunari zuzentzen zaion udaltzainak euskaraz egingo diola.

Aretoko presidente Luis Ángel Garrido Bengoechea eta José Antonio González Saiz eta Trinidad Cuesta Campuzano magistratuek sinatu duten epaiak ere badio Irunen gutxiengoa dela euskaraz dakien jendea, eta horri garrantzia ematen dio erabakia hartzeko orduan. Gutxiengo izatea, ordea, ezin da izan eskubideak ukatzeko arrazoi.

ERABAKI POLITIKOA

Euskaltzalgintzaren Kontseiluak agerraldia egin du gertatukoaren harira. Hiru ideia nabarmendu ditu Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak: erabakia politikoa izan dela, epaia ez dela gertaera isolatua, eta beharrezkoa dela komunitatearen batasuna.

Epaia legea bera urratzen duela adierazi du Bilbaok: “Ongi legoke Irungo Udalak magistratuei betearazpen intzidentea eskatzea, epaia legea urratu gabe nola aplikatu behar duen jakiteko”. Epaia, gainera, azken urteetan epaitegietatik datorren joera baten beste katebegi bat baino ez dela aipatu du: “Behin eta berriro datoz euskaldunon eskubideen urraketak are gehiago ahalbidetuko dituzten epaiak. Besteak beste, Nafarroako Justizia Auzitegitik zein Auzitegi Gorenetik”.

Horren aurrean, batasunerako deia egin du. Elkarretaratzea deitu dute Bilbon, maiatzaren 22rako.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Begiak



ARITZ GALARRAGA

Azken egunetan nabaritu dut hazkunde bat, bere osasun arazoak esplikatzeko dizkidan jendearena –ez da kexa; kontrara, gustuko dut erabilgarri izatea–. Agian izango da nik ere esplikatu ditudalako nire osasun arazoak –arazo arin, aldi baterako, zorionez osatuak– liburu autobiografiko batean –eta honaino zutabe hauetako propaganda tartea–. Adibidez, begietakoak: lagun batek esan dit, kontxo, kataratak operatuko dizkiotela. Eta, 2x1, miopia ere zuzenduko diotela. Miopea bainaiz –ez betidanik; eta ez dut haur-nerabezaro traumatikorik bizi behar izan, ez behintzat betaurrekoak eramateagatik–, inoiz edo behin otu zait operatzea. Ez dut sekula gauzatu, sinetsita bainago erakargarriagoa naizela betaurrekoekin, edo ez hain itsusia behintzat.

Lagunaren aitortpenak kezkatuta utzi nau, ordea, gazteegia baita halako eritasun bat izateko. Eta gogoratu naiz, hain justu, horixe bera esan zidala begietako medikuak, gazteegia nintzela, dispertsio pigmentarioa diagnostikatu zidanean. Dispertsio pigmentarioa, izen zinez ederra, glaukoma batean buka deza-keela kontuan hartzen ez badugu. Eta glaukomak itsutasunean. Gehitu horri euli hegalaria, ikusmen eremua gurutzatzen duten orban beltz nimenak. W.B. Sebald irakurri bitartean ikasi nuen zer ziren. Egun batetik bestera hasi zitzaizkidan agertzen begietan. Total, berrogeitaka urterekinitsu gera nintekeela esan zidala begietako medikuak. Ikusiko dugu.

Eta ez dut sinesten patuan, kuak. Baina egia da beti izan diodala izua itsu geratzeari, begietako arazoak hasi baino askoz lehenagotik. Behatzaile izan naizelako, segur aski –voyeur izan gabe, noski–. Eta begiak oso garrantzitsuak direlako literaturan: Biblian bertan mila bat aldiz agertzen dira. Baina, batez ere, eta audio-liburuak existitzen diren arren, irratiko foilletoiak, braillea bera, ez diodalako uko egin nahi sekula plazer maiteenetako bat den, ez bada maiteena, irakurketari. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“ESPETXEEN TRANSFERENTZIAK ERRAZTU BEHARKO LUKE ESPETXE-POLITIKA NORMALIZATUA APLIKATZEA”

BAKE PROZESUA INDARTZEKO FORO SOZIALA

Espetxe eskumena Eusko Jaurlaritzaren eskutara aldatu izana “beharrezkoa urratsa” dela esan du Foro Sozialak, eta “birgizarteratze-plan bat” definitzea eskatu du, “presoei banakako birgizarteratze-ibilbidean (3. gradua eta gizarteratze prozesua) laguntzeko”. Gainera, “urrats horrek erraztu beharko luke espetxe-politika normalizatua aplikatzea motibazio politikoko delituengatik kondenatutako pertsonen, eta oraindik indarrean dauden salbuespenezko neurriekin amaitzea”. 2021/05/10



Antikapitalismotik haratago



JUAN MARI ARREGI

Batzuetan, munduan nagusi den sistema kapitalista aztertzerakoan, hausnarketa antikapitalista hutsen harrapatuta gera gaitezke. Ahaztu egiten zaigu kapitalismo horrek alternatibak dituela, eta batez ere, horiek praktikan jar daitezkeela. Euskal Herrian alternatiba asko eta askotarikoak garatzen ari dira, nabarmendu eta txalotu beharrekoak, antikapitalismoaz orokorrean hitz egin beharrean. Antikapitalismoa aho txikiarekin aipatu ordez, praktika horiek bultzatu behar dira.

Mondragon Taldearen esperientzia kooperatiboa, arlo horretan aitzindaria izan zen joan den mendearen erdialdean. Bere alde onak eta txarrak izan baditu ere, bidezkoa da aitortzea haren hasierako asmo onak eta hainbat sektoretan kooperatibismoa garatu eta mantentzeko egindako lana.

Baina azken urteetan, esperientziak beste hainbat arlotan garatu dira: industrian, hezkuntzan, kulturen, artean, nekazaritzan, finantzetan, kazetaritzan... Adibide batzuk jarriko ditugu, nahiz eta askoz gehiago izan daitezkeen. Hor dauke Nafarroako Errigoraren 25 ekoizleak, "lurra gurea dela eta ez merkatuarena" defendatzen dutenak. Finantzen arloan Koop57 aipa dezakegu, 186 pertsonari lan ematen dien 36 proiektu diruz lagundu dituenak. Komunikazioaren eta kazetaritzaren alorretan ere, hemen, ARGIA, Ametzagaitza taldea du, komunitate zabalak sostengaturik. Bestalde, Olatukoop ekonomia eraldatzaileraren sarea hedatzen ari da; aipatu ditugun enpresa horietako batzuk kide dira, baita askoz gehiago ere.

Berdintasuna, elkartasuna, feminismoa, ekologia, burujabetza... Balio horiek gure ekimen eta esperientzietara eramatea, geure bizitzan eta gizartearen txertatzea, antikapitalismo hutsetik harago joatea da: kapitalismoaren ordezkotik mundu berri baten oinarriak ari gara jartzen. ●



LAPRENSA.COM/EC

Hezkuntzaren guru gehiagorik ez, mesedez

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Andaluzian ikasgeletako ratioak jaitsi –eta horretarako langileak kontratatu– dituzte pandemiagatik eta hara, sorpresa, ikasleen emaitzak eta klaseko giroa hobetu egin dira. Eskolak ez ditu behar edukiz hustutako pedagogia miragarriak saltzen dituzten guruak, ez ditu behar irakasle-izarrak, eskolak baliabideak behar ditu.

Oinarrizko –eta aspaldiko– aldarrikapenak aintzat hartzeko aprobetxatu zitezkeen pandemia: batetik, gela bakoitzeko ikasle kopurua txikitzea –ikasle bakoitzari eskaintzen zaion arreta handitu ahal izateko–, eta bestetik, handitzea hezkuntzako langileen kopurua, errefortzuak eta baliabide materialak –pandemia garaioan, esaterako, espazio fisikoa bera–. Hori guztia bideratzeko, hezkuntzan egiten den inbertsio publikoa handitzea aspaldiko eskaera da, gutxienez Europar Batasuneko batez bestekoarekin parekatzeraino.

Pandemiak eraginda Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ratioak jaitsi dituzte Andaluzian –ikastaldeak zatitu eta txandaka aritu dira–, langile gehiago kontratatu dituzte, eta ondorioa berehalakoa izan da: emaitza akademikoak hobetu dira –ikasgaia gaitzitu duten ikasleak lehen baino gehiago dira, besteak beste– eta azpimarratu dutenez, eskola barruko gatazkek ere behera egin dute.

Baina hezkuntza espektakulutik eta negoziotik bizi dutenek saltzen digutena da etorkizuneko pedagogia distiratsua, puntako teknologia birtuala, irakasle baino gehiago *coach* diren gurun mezu arranditsuak, multinazionalen promozionaturiko Munduko Irakasle Onenaren eta enparauen irudia, irakasle-izarrak eta are, unibertsitate izarrak –dagoeneko unibertsitate publikoan badagoen eskaintza opari-paper ederragoan bilduta dakarren Gasteizko Euneiz European University polemikoa kasu–... Horiek guztiek ez dute kontuan hartzen ikasleen maila sozioekonomikoa, ikastetxe batetik besterako amildegia baliabideetan, errealtate bakoitzaren beharrak, taldearen aniztasuna, kohesioa eta ekitatea, eta batez ere, ikastetxe osoaren eta hezkuntza-komunitatearen inplikazio eta ahalegin kolektiboa ere –bide hori egiteko dituzten erraztasunen ondorio ere– badela hezkuntza.

Eta ez dezagun ahaztu, atzealdean ikuspegi indibidualista duten mezuak erakargarriagoak izango dira begirada liberala duen administrazioarentzat, azaleko esloganek fokua irakasle bakoitzaren prestutasunean, borondatean eta balioan jartzen dutelako, eta ez hainbeste kolektiboa den eta horretarako profesionala eta ongi hornitua behar duen jardunean. ●



AROTEGIKO PROIEKTUA GELDITU NAHIAN

BAZTAN. Aroztak Herri ekimenak deituta, Elizondotik Lekarozera manifestazioa egin dute Aroztegiako makroproiektua gelditu dezatela eskatzeko. Antolatzaileen arabera, 2.500 lagun inguruk parte hartu dute. Apirilaren 8an hasi ziren Lekarozen luxuzko 228 etxebizitza, 126 logelako hotela, spa gunea eta golf zelaia egiteko lanak, Palacio de Aroztegia SM enpresak aginduta. Herritarrek lanak egin behar zituzten lurretan egindako kanpaldiak 11 egun iraun zituen eta lanak gelditzea lortu zuten.

EUSKARA NAFARROAN

165

familietak umeak euskarazko haur eskolarik gabe geldituko dira Iruñean hurrengo ikasturtean, behin-behineko zerrenden datuen arabera. Beste hainbat familiak zuzenean gaztelaniara jotzen du etsita, euskarazko plaza bat lortzea zaila ikusten duelako. “Eta hala ere –dio Haur Eskoletako Gurasoak taldeak– oraindik ere, euskara eskatzen da, baita onartzeko aukerak oso murrizak diren lekuetan ere”.



METROA. Eusko Trenbide Sarea Donostian eraikitzen ari den metro pasanteak eragindako azken zuloagatik Kontxako hondartzako aldagelak itxi zituzten. EH Bilduk jakinarazi duenez, zuloa estaltzeko 100 metro kubo hormigoi behar izan dituzte eta aurreko zuloen hirukoitza da.



HEZKUNTZA. Bigarren zikloa amaitzean ikasleek egiten duten Bereba azterketako zientzia probak ezin dira euskaraz egin, Frantziako Hezkuntza Ministerioaren aginduz. Seaskak kolegioak dituen herrietan mobilizazioak deitu dituzte, proba euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzeko.



Etxebizitza eskubidea aldarri

ARGIA

Agintariek ahalbidetzen eta bultzatzen dituzten politikak zaila bihurtu dute etxebizitza eskubidea bermatzea eta egoerak isla garbia izan du kaleetan, azken astean ere.

POLIZIA, DESOKUPA, HERRITARRAK

Bilboko Udaltzaingoak Arrakala espazioa hustu du, agindu judizialarekin. Hamabost urte hutsik zeramatzan espazioa apirilaren 17an okupatu zuten, Alde Zaharreko Etxebizitza Taldearen espazio liberatu gisa. Bilboko Udal Etxebizitzak erakundearen jabetzakoa den etxebizitzan bizi den Judithek ere maiatzaren 14ko datarekin zuen etxe kaleratze agindua, baina kaleratzea gelditzea lortu zuten auzokideek. Bilbon halaber, huste bat iragarri zuen eskuin muturrarekin lotura duen Desokupa enpresak, baina etxejabea atzera bota zen, ehunka herritarrek manifestazioa egin ostean.

HASERRE

Etxebizitzaren garestitzea, espekulazioa, funts putreak, turistifikazioa... Donostiak bizi duen “etxebizitza larrialdia” aurre egiteko bestelako politikak urgentziaz ezarri behar direla aldarrikatzeko, manifestazioa deitu du maiatzaren 22rako hiriburuko hainbat auzo elkartek. Ildo berean, Hendaiaiko Enbata Gaztetxeak “Euskal Herria ez da salgai!” lelopean abiatu du etxebizitzaren inguruko salaketa kanpaina.

"NORD STREAM 2" GASBIDEAREKIN EUROPA KATRAMILATUTA DAGO MOSKU ETA WASHINGTONEN LEHIAN

Errusiatik Alemaniaraino gasa ekarri behar duen 1.200 kilometroko hodi batean dago korapilatuta Europar Batasuna, AEBen eta Errusiaren arteko harreman berez arantzatsuak bahituta. Ukrainako gerraren hotz-beroak, Alexei Navalny oposizioko politikari errusiar espetxeratuaren inguruko tentsioak, Sputnik txertoaren gurutze bide europarra... ezin dira erabat ulertu *Nord Stream 2* ezagutu barik.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Energiaren krisiari aurre egiteko estrategietan dena ez baita hai-ze-errota, plaka fotovoltai-ko eta hidrogeno, Europar Batasunean atzerritik ekarri beharreko gasaren inguruan ari da jokatzeko bataila gogorra. Gasarena kontutan hartu barik ezin dira osorik ulertu Mosku eta Washingtonen arteko talkaren erdian Europak bizi di-tuen tira-birak. Maiatzeko *Le Monde Diplomatique*-n Mathias Reymond ekon-omialariak eta Pierre Rimbart erre-daktoreburuak azaldu dituzte aferaren hari nagusiak.

Errusiako Vyborg hiritik Alemania-ko Greifswaldera Baltiko itsasoan ba-rrena 1.200 kilometroko *Nord Stream* hodiak jada urtean 55.000 milioi metro kubo gas natural darama, 2011n inau-guratu ostean. Ideia bat egiteko, Fran-tziak 2019an denera 43.400 milioi me-tro kubo kontsumitu zituen. Gas emaria 110.000 metro kubikotara iritsi ahal iza-teko erantsi nahi izan diote bigarrena, *Nord Stream 2*... kasik amaitzeaz zegoela korapilatu dena AEBen eta Errusiaren arteko gerra hotz berrian.

1970eko hamarkadan hasi zen men-debaldeko Europa gasa ekartzen Sobie-tar Batasunetik, bloke komunistaren eta kapitalistaren arteko zubi-lana egiten zuten gasbideok. 1982an Ronald Reagan AEBetatik trafiko horri zigorrak ezarri nahi izan zizkienean, orduan 10 herrial-dek osatzen zuten Europar Batasunak aurre egin zion.

Baltikoan barrena 2005etik 2011ra artean *Nord Stream* hodia eraiki zute-nean amerikarrek ezer gutxi esan zuten. Aldiz, 2016an bigarren hodiarekin atera dute zigor ekonomikoen artilleria osoa, *Nord Stream 2* gelditu eta proiektuan parte hartzen zuten konpainia askori ihes egitera behartuz. AEBen erasoaren oinarrian faktore berri bat zegoen: Gas Natural Likidotua (GNL).

Gasa hoderititik ekartzeko kontra-tuak urte luzetarako sinatzen baldin badira, likidotu eta itsasontziz ekarri-takoak erosleari askatasun handiagoa uzten dio negoziatzerakoan. Baditu bere arazo teknologiko eta ekonomikoak, bai-na GNL modan jarri da, Europak kont-sumitzen duenaren herena itsasotik iristen zaio eta 30 portutan badauzka gas hau lehorreratzeko azpiegiturak. Kontua da AEBak direla munduan gas natural gehien ekoizten dutenak –frac-king teknologiarekin lurrari aterata, fun-tsean– eta European ikusten duela hori GNL formatuan saltzeko merkaturik era-kargarriena.

Ukraina deitzen da gatazkaren bes-te osagaia. Errusiatik Europa asetzen zuen hodi nagusiak luzaz Ukraina zehar-katzen zuena zen eta ukrainarrak saia-tzen ziren Sobietar Batasunaren aroak utzitako ondare horri zukua ateratzen, kanalaren erdi-bideko giltza zabalik edukitzearen truke errusiarrei prezio eta baldintza hobeak kobratzen saiatuz. 2014an Krimea galtzea eta berrikitan

beroaldia nozitu duen Donbasseko ge-rra, bitartekariaren eta hornitzailearen arteko liskarrek berotu zuten aurretik. Ukraina saihesteagatik, gainera, Mosku mugimendu bikoitza egin du azpiegitu-retan: hegoalde hodi berri bat eraiki Turkia zeharkatuta Bulgaria eta Serbian barrena iristeko Hungaria eta Austria-raino, eta Iparraldetik *Nord Stream* lehen hodiari bigarrena gehitzea.

ALEMANIAK EZ DU AMORE EMAN

Baltikoko gasbidearen kontra egon dira Obama eta Trump, eta hala dago Biden ere, AEBetan demokratik eta errepu-blikarrak bat datoz *Nord Stream*-ek Eu-ropa, eta batik bat Alemania, Errusiako energiaren mende uzten duela argudia-tzeko orduan. 2020an Errusia, Iran eta Ipar Korearentzako prestatutako zigor ekonomiko berdinekin egin diete meha-txu europarrei, "Alemaniara edo Turkia-ra eraman nahi diren hodiak eraikitzen dituzten itsasontziei laguntzen dieten guztiei bisak eta ondasunak kenduz". Gas errusiarrek Europaren energia se-gurtasuna arriskuan jartzen omen du, lege horren arabera; ez, ordea, AEBeta-tik Europako kaietaraino bidalitako gas natural likidotuak.

Europar Batasunaren barruan, Po-lonia eta Baltikoko herrialdeak kontra edukita ere, Alemaniak –Frantziaren eta Europako erdialdeko beste zenbait estaturen laguntzarekin—eusten zion



GERHARD SCHRÖDER

ALEMANIAKO KANTZILER OHIA
NORD STREAM GASBIDEAREN
LANAK IKUSKATZEN: BERA DA
GAS ERRUSIARRAREN ALDEKO
LOBBY BURU EZAGUNENA.
ARGAZKIA: NORD STREAM.

bere estrategiari, energia nuklearretik 2022an eta ikatzetik 2038an irteteko-tan, berriztagarriak behar adina indartu bitartean gas naturala beharrezkoa duelakoan. Baina Emmanuel Macronek Merkeli emandako hitza jan eta aurkariekin egin du bat; errusiarrekiko menpekotasun arriskuak aipatzen ditu, ziur aski Alemaniarekiko beste lehiaren bat estaltzeko.

Aurretik, ordea, 2018ko uztailean, Donald Trumpek –Europako esportazioei AEBetan zergak gogortzeaz mehatxu eginda– lortu zuen Bruselak amore ematea afera honetan: Europar Batasunak onartu zuen gasarekiko bere estrategia osoa berrikustea, gas natural likidotuari indarra eman eta hodiesatik inportatutakoari kenduz. Trumpek orduan Europako lehendakari zen Junckerren aurrean

egindako fomulazioan, “askatasunaren gasa” lehenetsi “gas-hodi totalitarioen” kaltetan.

Pierre Rimbertek idatzi duenez, “Europa zaharrean AEBek badakite orain badaukatela Polonia bera baino aliatu sendoago bat: Bruselako agintarien dogmatismo liberala. Hain zuzen, Junckerrek eta Trumpek AEBetatik iritsitako gasari buruzko ituna sinatu eta hilabete gutxira, Europako Parlamentuak 2019ko apirilaren 17an aldatu zuen 2009tik indarrean zegoen gasaren zuzentaraua, Amerikatik eta bestetatik ekarritako GNLa sustatzeko”.

Noiz iritsiko da gasa *Nord Stream* 2-tik? Ezin jakin gaur gaurkoz. 1.200 kilometroko burdinazko aingira erraldoiari Alemaniako kostaraino iristeko dozena batzuk kilometro baizik ez zaiz-

kio falta, jada 9.500 milioi euroko inbertsioak eginda dauzkate eta, hedabideek zabaldu dutenez, obra burutzeko lanean ari da *Fortuna* itsasontzia, laguntzaile dituela *Katun* eta *Baltiski Issledobatel* logistika-baporeak. Azkenean, Europako konpainia askok proiektuari uko egin ostean, Errusiak bere gain hartu du azken kilometroak eraikitzea. Iturria laster edukiko dute Alemanian prest 55.000 milioi metro kubo gas eskuratzeko.

Alemaniak loxintxa bidez lortu nahi omen du AEBak biguntzea. Konpainia eta agintari askok eusten diote han *Nord Stream* asmoari. Yankien zigorrak saihesteko estrategiak ere prestatzen dituzte Mendebaldeko Pomeranian eta beste zenbait landetan. Irailaren 26rako iragarri dira, gainera, hauteskundeak. Erditik ibiliko da Errusiako gasa. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

“

EMAKUMEAK NAHITA KANPORATU ZIREN BIDEO-JOKOEN EKOIZPEN PROZESUTIK

”

Tabakaleran egin dugu topo. “Errealitate bideo-ludifikatua. Bideo-jokoak gizarte garaikidean duen garrantzi soziala” nazioarteko mintegian parte hartzera etorri da Donostiara. Bideo-jokoen mundua arrotza zait *Super Mario Bros 3*-z geroztik eta errezeloz gerturatu naiz hitzaldira. Bukatu duenerako koadernoak galderaz beteta daukat. Azkar hitz egiten du Martak, eta transkripzioaren laurdena ere ez da elkarriketa honetan ageri dena. Eta orain bideo-jokoak interesatzen zaizkit. Asko.

 MIREN ARTETXE SARASOLA  A. MARQUEZ / EFE

Nola iritsi zinen bideo-jokoei buruzko kazetaritzara?

Beti gustatu izan zait idaztea. Nerabezaroan, Malagako nire ikastetxean aldizkari bat sortu genuen lagun batek eta biok, eta sekulako harrotasuna nuen horrena. Kazetaritza gustatzen zitzaidan, baina oso ikasle ona nintzen eta nire gurasoek zientzia ikasketak egin nitzan nahi zuten. Ingurugiro zientzien eta Itsas zientzien ikasketak egin nituen orduan. Oso ikasketa politak dira, izatez, baina ez zetozen nirekin bat. Niri kultura interesatzen zitzaidan, eta zinema, bereziki. Orduan, hedabideetan kolaborazioak egiten hasi nintzen zinemari buruz. Blog pertsonala ere baneu-

kan, eta bideo-jokoez ere idazten hasi nintzen. Ez nintzen bideo-jokoetan aditua, baina joko batzuk asko gustatzen zitzaizkidan, eta inguruko bidez joko berriak deskubritzen joan ahala, blogean gero eta leku gehiago eman nien bideo-jokoei. Eta urtebeteen-edo, dena lehertu zen.

Jende askori interesatu zitzaion egiten ari nintzena, bideo-jokoen gune espezializatu askotatik deika hasi zitzaizkidan, eta kolaborazio asko egin nituen, nire ustekaberako, AnaitGames-en webgunea zuzentzera iritsi arte. Eta, zorionez edo zoritxarrez, bideo-jokoei buruz idazteagatik soldata egonkorra irabazten duen bakarrenetakoa naiz orain.

Zerk erakarri zintuen bideo-jokoengandik haiei buruz idazten hasteko?

Narratibarekin zuen harremanak. Askotariko narratibak sortu ahal izateak, teknika hutsetik harago, eta narratiba artearekin gurutzatzeko moduak ere bai. Literatura ere asko gustatzen zaidan, baita zinema ere, baina bat-batean ikusi nuen ez batean eta ez bestean aurkitzen ez nituen gauzak egiten ari zirela bideo-jokoetan, sinpleak, baina bikainak, eta horregatik hasi nintzen horri buruz idazten. Jokalari gisa nuen ibilbidea laburra zen, baina zinemari eta literaturari buruz nituen nozioetatik abiatuz bideo-jokoak gainerako pop kulturarekin



Marta Trivi

MALAGA, 1988



Bideo-jokoetan aditua den kultur kazetaria. Bideo-jokoei buruzko kultur kritika egiten duen AnaitGames webgunearen zuzendaria da. Bideo-jokoetako matxismoari buruzko *Nerfeadas* dokumental-telesailaren zuzendarikidea da Marina Amoresekin batera, eta bideo-jokoak genero ikuspegitik aztertzen dituen *Protesto* liburuaren editore eta idazlekidea ere bai.

lotzen nituen, eta hori izan zen –eta da– nire ekarpena, nik uste.

Jokalari gisa, hain zuzen ere, zein izan da zure esperientzia?

Txikitan bideo-jokoetan jokatzeko nuen. 10 urteko haur askori bezala, abentura grafikoak gustatzen zitzaizkidan. Ordenagailuan piloa neuzkan, eta nire nebarekin partekatzen nituen. Nerabearora heltzean, nire gelako lagun mutil batzuekin jolasten hasi nintzen, eta halako batean online jolasten hasi ziren. Hura beste kontu bat zen. Komunitate bat. Eta orduan konturatu nintzen hura ez zela nire lekua. Neska izateagatik desberdin jokatzeko zuten nirekin. Susmagarria nintzen. Zer egiten nuen nik han? Ligatu nahian nenbilen? Askori pasa zaigu hori. Badirudi neska baldin bazara ezin zaizkizula bideo-jokoak gustatu, berez. Norbaiten arretra zeureganatzeko ari zara derrigorrez. Mutilak erakartzeko. Zurea itxurakeria da eta ez benetako interesa. Garai hartan erabat utzi nion bideo-jokoetan aritzeari.

Gerora konturatu naiz hori izan zela neska gehienon kasua. Dokumentala prestatzeko 21 neska elkarrizketatu genituen, denak oso ibilbide ezberdinetakoak eta denek kontatu ziguten haurtzaroan ez zutela arazorik izan, lagunekin edo senideekin jolasten zirela eta kito, baina nerabearoan online mundura jauzi egiterakoan, oso bakarrik sentitu zirela.

Kazetari gisa hurbildu naizenean berriz mundu honetara, berriro sentitu dut matxismo bera. Gizon batek bideo-jokoei buruz idazten duenean, jendeak pentsatzen du badakiela zertaz ari den. Ez diote galdetzen zer ikasi duen, ea betidanik aritu ote den bideo-jokoetan... Ez. Gustatzen zaie ala ez, baina ez dute bere jakintza auzitan jartzen. Niri etengabe galdetzen didate ea benetan gustatzen zaizkidan bideo-jokoak. Uste duzu benetan interesatuko ez balitzait mundu hau hemen egongo nintzatekeela etengabeko ahaleginean?

Zertan da desberdina bideo-jokoetan aritzea emakume ala gizon izanik?

Gauza askotan. Pertsonaiei begiratu besterik ez dago. Gure dokumentalean elkarrizketatuetako batek kontatzen du nola txikia zela *Pokemon* jolasa oparitu zioten. Bere lehen bideo-joko

zen, eta jolasak berak bere izena zein zen galdetu zion, eta berak berea idatzi zuen, noski. Lehen partida hasterakoan ohartu zen jolasak bere izena jarri ziola bere *abatarra* zen pertsonaia maskulino bati. Hori ikusita partida ezabatu, atzera egin, eta bere buruari izen maskulinoa jarri zion. Horrelako identifikazio arazoak etengabeak dira bideo-jokoetan. Emakume pertsonaia gutxi daude, eta daudenak hala moduzkoak.

Sexualizazioa ere arazoa da. Niri, adibidez, sekulako atzerakoa eragiten zidan horrek txikitan. Titi haiek, gorputz haiek, janzkera haiek... Emakume gisa zaila zitzaidan horrekin identifikatzea. Eta gizon pertsonaiekin jolasten nintzen. Azken batean, ez ziren emakumeek gure burua errepresenta genezan sorturiko pertsonaiak. Gizon heteroen fantasia sexualei erantzuten zieten pertsonaiak ziren. Geroztik pixka bat aldatu da kontua, baina ez nahikoa. Azken hilabeteon joko berri bat atera da Play Station 5erako, *Returnal* izenekoa, protagonista gisa emakumea duena. Eta sareetan gehien aipatu dena izan da emakumea itsusia dela. Itsusia ez, emakumea heldua da eta zimurrak ditu. Gizonezkoak izan daitezke altuak, baxuak, lodiak, indartsuak, ahulak... baina emakumeek ederrak izan behar dute gizon zuri heteroen begietara. Badaude salbuespenak, noski, baina esku bakarreko hatzekin zenba daitezke.

Eta sexualizazioaz gain, normalean pertsonaia femeninoak gutxiago lantzen dira. Borroka jokoetan, esaterako, ez da soilik pertsonaia femeninoek mugimendu abaniko txikiagoa dutela edo ahulagoak direla, pertsonaiaren atzeko istorioa ere ahulagoa izan ohi da. Beste pertsonaiek borrokatzeko dituzten arazoak landuta egon ohi dira, eta nesken kasuan, aldiz, halako pertsonaia borrokan ari da bere aita arte martzialetako irakaslea zelako. Edo halako pertsonaia zombien apokalipsia ikertzen ari da, bere neba desagertu delako. *Tomb Raider* bideo-jokoko Lara Croft bera ere arkeologoa da bere aita arkeologoa zelako... Hau guztia aldatzen ari da, baina helduen jokoetan soilik. Hurrei zuzendutako jokoetan 60ko hamarkadako estereotipoak ikus daitezke oraindik.

Baina pertsonaiekiko identifikazioa ez da beharrezkoa



CODIGO SPORTS

“Geguri korearra ezaguna egin zenean, *gamer* komunitateak ezin zuen sinetsi emakume hura hain ona izan zitekeenik Overwatch jokoan, eta sekulako polemika sortu zen”.

jokoan ona izateko, ezta?

Ez noski. Baina erreferente falta ere hor dago. Jokalari profesionalen %5 baino ez dira emakumeak, esaterako. Eta maila gorenera iristen direnek ere gizonezkoek baino zailagoa izan ohi dute bidea. Hor dago Geguri-ren kasua, esaterako. Emakume korear hau *Overwatch* jokoan izugarri ona da, onena ez bada. Ezaguna egin zenean Gamer komunitateak ezin zuen sinetsi emakume hura hain ona izan zitekeenik, eta sekulako polemika sortu zen. Iruzurtitzat jo zuten, bot-ak erabiltzen zituela esan zuten, eta publikoki erakutsi behar izan zuten, hiru epaileren aurrean kamerek bere hatzak grabatu bitartean, bera zela jokatzeko ari zena eta benetan zela horren ona. Hori emakume idazleekin ere pasa izan da. Emakume idazle askori ez zaie beraien lanen egiletza aitortu. Eta beste askok kaleratu izan dituzte liburuak haien senarren, anaien edo aiten sinadurarekin. Jokalari emakume askok erabiltzen dituzte *nick* edo ezizen neutroak edo maskulinoak online, arazo gutxiago izateko. Emakumea zarela antzematen badizute etengabekoak izaten dira *arzalpenak* edo isekak...

Bideo-jokoaren sortzaileak ere gizonezkoak dira gehienak...

Eta aniztasun ezetik ezin da aniztasu-

nik sortu. Egia da oso emakume gutxi lan egiten dutela bideo-jokoaren ekoizpenean. Azalpen gisa esan ohi da emakume gutxi hautatzen dituztela ikasketa teknikoak, eta horren arrazoiez ere eztabaida liteke, baina hori baino harago doa kontua. Bideo-jokoak sortzea diziplina-arteko lana da. Programatzaileak behar dituzte, baina baita arteaz arduratu den jendea ere, istorioak idatziko dituen, lokalizazio lanak egingo dituen, musika konposatu, ekoizpenaz arduratu, marketin lanak egin... Emakume gutxi daude bideo-jokoaren ekoizpen enpresetan, oso mundu maskulinizatua eta endogamikoa delako. Ekoizpen enpresetan jende ezagunaren bitartez lortzen da lana. Jolas berri bateko grafikoak egiteko eskatu dizutela, edo musika kolaborazio bat halako beste jokotan... Elkar-ezagutzak bideo-jokoaren inguruko jardunaldi eta ekitaldien ondorengo tra-goetan gertatzen dira. Eta gune horietan lan harremanak sortzea are zailagoa da emakumeentzat.

Hesia izugarria da. Bestela ezin da azaldu anomalia estatistikoa. Ez soilik populazioaren erdia garelako, baizik eta

bideo-jokoak sortzeko behar diren lanbide askotarako ikasketetan gehiengo emakumea delako. Arte ederretan, itzul-pengintzan, publizitatean... Aldea izugarria da. Eta programazioan emakume gehiago ez egotea ere ez da kasualitatea. Emakumeak nahita kanporatu ziren sektoretik.

Nola kanporatu?

Programazio informatikoa lanbide gisa sortu zenean interpretatu zen gizonei zegozkiela matematikak eta algoritmoak, eta hori guztia ordenagailuak ulertzeko moduko hizkuntzara pasatzea emakumeek egin zezaketela. Transkripzio mekanografikoarekin konparatzen zen. Idazkaritza lanarekin. Ez zeukan baliorik, eta erabat sektore feminizatua izan zen bere sorreran. Baina informatika garatu ahala ikusi zen programazioak matematika ezagutza altuak eskatzeaz gain, sortzailetasuna ere eskatzen zuela, eta etorkizunean garrantzitsua izan zitekeen lanbidea zela. Orduan emakumeak kaleratzen eta gizonak kontratatzen hasi ziren. Eta programazioa ikasketa tekniko soil izatetik unibertsitate mailako

“
**Bideo-jokoek beste
norbaiten azalean
jartzeko aukera ematen
dute zentzu askotan, eta
horrek potentzialitate
izugarria du”**

karrera bihurtu zen. Gurpil zoroa mar-txan jarri zen. Emakumeek ez zuten ez unibertsitatean ikasten, gizonak egin ziren sektorearen jaun eta jabe. Beste arlo askotan bezalaxe. Kontua da prestigioa gizonen presentziarekin batera doala. Arlo bat, prestigioa irabazi ahala, gizonetza bezalaxe. Aldi berean, emakumerik ez egoteak ematen dio prestigioa arlo bati. Eta prestigioa duen arlo batera emakumeak heltzea beti da zailago.

Sektorearen barruko esparruen banaketan ere gertatzen da. Honen adibide onena Japoniako bideo-jokoetako musikarena da. Hasiera batean bideo-jokoetako musika instrumenturik gabea zen, tonu ezberdinetako "piii" txikiekin egiten ziren jolasen konposizioak. Eta 80ko hamarkadako bideo-jokoetako musikan emakumeak ziren mundu mailako erreferente. Gerora, bideo-jokoetan bestelako musika sartzeko aukera zabaldu zen. Garatuagoa eta konplexuagoa. Eta ordu-ra arte konposizioan aritu ziren emakume haiek guztiak desagertu ziren bideo-jokoaren industriatik. Gutako hainbatek ditugu orduko bideo-jokoaren musikak gogoan, eta hori onak zirelako da! Haien konposizio gaitasuna izugarria zen, baina bukatu zen hura.

Emakumeen eskutik berrikuntzak sortzen direnean ere, erresistentziak sortzen direla diozu...

Bai, emakume sortzaile asko ari dira beste mota batzuetako bideo-jokoak sortzen. Anna Anthropy-k esaterako, memoriaren eta biografiaren generoa sortu zuen bere *Dys4ia* bideo-jokoarekin. Oso mekanismo sinpleen bidez, pertsona transgenero baten esperientziak modu birtualean sentitzeko modua eskaintzen zuen jokoak. Izan ere, horretarako ere balio dute bideo-jokoak. AEBetako armadak bideo-jokoak sortu



izan ditu soldaduak entrenatzeko, baina baita gerra-traumak tratatzeko ere, eta hori zerbaitengatik da. Bideo-jokoek beste norbaiten azalean jartzeko aukera ematen dute zentzu askotan, eta horrek potentzialitate izugarria du. Bide horretatik ildo esperimental batzuk arrakasta handia izan dute, biografiaren eta memoriaren gaiak jorratzen dituztenek, esaterako. Baina bazterrekoztat jotzeko joera dago. Politikotzat jotzekoa –zeren noski, *Call of Duty* gerra jokoak ez da politikoa–. Ez dira *egiazko* bideo-jokotzat hartzen. Eta arrakasta izan duten kasuetan, erreakzio oso bortitzak ere sorrarazi dituzte. #GamerGate-a ikusi besterik ez dago.

Zer izan zen #GamerGate-a?

2014an gertatu zen. Bideo-jokoaren industriako hainbat emakumeren aurkako ziberjazarpen-kanpaina izugarria izan zen.

Zoë Quinn-ekin hasi zen dena. Quinn-en mutil-lagun ohiak berari buruzko argitalpen faltsu bat idatzi zuen, esanez kazetari batekin sexu harremanak izan zituela bere bideo-jokoari buruzko kritika onak idatzi zitzaizkion. Quinn-ek bideo-joko autobiografiko bat sortu berri zuen eta sekula-

ko arrakasta izaten ari zen. Kontua da kazetari horrek ez zuela inoiz Quinn-en bideo-jokoak aipatu.

Bideo-jokoaren mundura kazetari gisa hurbiltzean berriz sentitu dut matxismoa"

Baina sua piztu zuen sareetan eta Quinn eta beste batzuen aurkako bortxaketa eta heriotza-mehatxu masiboak izan ziren. Quinnen etxeko zein bere gurasoen etxeko helbideak argitaratu ziren, birluzik ageri zen argazkiak publiko egin... bizitza izorratu zitoten. Ez zen

bakarra izan. Emakumeak jazarri zituzten bata bestearen atzetik. Bereziki egin zitoten eraso Anita Sarkeesian kritikari feministari ere. #GamerGateren aldeko prentsaren eta feministen arteko aliantza ez-etikoaren aurkako kanpaina gisa saldu zuten kontu hura. Baina argi geratu da bideo-jokoaren munduan bestelako bideak jorratu nahi zituzten eta ideia feministak zituzten emakumeen kontrako eraso besterik ez zela izan.

Zorionez, gatazka hark bistaratu egin zituen emakumeen industria honetan jasaten zituzten hainbat ezberdinkeria. Emakume askok hartu zuten hitza haien esperientziak publiko egiteko eta erreakzio gure arteko aliantzak ere sortu eta sendotu egin ziren. Gaur egun emakume pertsonaia gehiago eta hobeak sortzea, emakumeek bideo-joko gero eta gehiago ekoiztea, eta ni hemen egotea ez da kasualitatea. ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com



Desokupa borrokatzeko irakasgaiak Herrialde Katalanetatik



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Burgesiak, ikusten duenean bote-break eskuetatik ihes egiten diola, faxismora jotzen du bere pribilegioei eusteko. Horixe gertatu da Espainian. Gobernu errepublikarrak faxistak benetan garaitu nahi izan balitu, aspaldi egin ahal izango zukeen. Horiei sakonki aurre egin beharrean, konpromisoak eta akordioak bilatu besterik ez du egin". Adierazpen sonatu hori Buenaventura Durrutik egin zion Von Passen kazetari kanadarrari *Toronto Star* egunkarirako egindako elkarrizketa batean, Franco buru izan zuen 1936ko uztailako altxamendu militarren ondorengo egunetan, Durruti Zutabea lau mila boluntarioekin Bartzelonatik Aragoira abiatu baino pixka bat lehenago.

85 urte geroago, argi dago ezin dugula "errepublikano" izendatu Espainiako Estatuko egungo gobernuak, bere burua "historiako gobernurik aurrerakoiena" bezala aurkezten badu ere. Ezin dugu esan ere PSOE-Podemos kabinetea sendo aurre egiten ari zaionik ultraeskuindarren gorakadari. Estatu-aparatua ideia eta praktika oso erreakzionarioek bahituta jarraitzen du, edozein eraldaketa sozial aurrerakoi indargabetzeko lan egiten dutenak. Monarkia, epailetza eta estatuko segurtasun indarrak erabiltzen dituzte, baina baita bere boterea sendotu eta almiranteek eragiten duten miseriarekin negozioa egin nahi duten aliatu berriak ere.

Desokupari aurre egiteko garatu den estrategiak hiru ardatz izan ditu: salaketak auzitegietan; haien jatorri eta praktika mafiosoen berri eman; eta auzo-antolakuntza

Desokupa enpresa da lankidetzak publiko-pribatuak bultzatutako eskubide eta askatasunen atzeraldi aro berri honen adibide nabarmenetakoa. Ertzaintzaren konplizitatearekin Abadiñoko eraikin bat desalojatuz aurkeztu da Euskal Herrian. Daniel Esteve da erakunde horretako burua. 2008an Mossoek Esteve atxilotu eta auzipetu zuten beran korrak kobratzeko enpresa baten aurkako operazio batean, legez kanpoko atxiloteta, irainak, mehatxuak eta legez kanpoko elkarteak osatzea egotzita. Enpresako kideen artean arte martizialetan adituak diren pertsonak daude, eta paramilitar, diskotekako atezain edo segurtasun pribatuko agente gisa aritu direnak. Frogatuta dago gehienek loturak dituztela eskuin muturrarekin.

Oihartzun publikoa izan zuen Desokuparen lehen interbentzioa 2016ko

apirileko Can Dimoniren desalojoa izan zen. Bartzelonako Gràcia auzoko finka bat da Can Dimoni, ondare historiko gisa katalogatua eta bertan behera utzia gazte talde batek okupatzea erabaki zuen arte. Une horretatik aurrera, herri mugimenduek #StopDesokupa kanpaina aktibatu zuten enpresaren praktikak salatzeko, eta *Directa*-k ikerketa lan oparoa hasi zuen (edizio digitalaren hemerrotekan eskuragarri: <https://directa.cat/tag/desokupa/>). Desokupari aurre egiteko garatu den estrategiak hiru ardatz izan ditu: salaketak auzitegietan (orain arte ez dute emaitzarik eman); haien jatorri eta praktika mafiosoen berri eman; eta auzo-antolakuntza, haien esku-hartze baten berri izan bezain azkar erantzuteko.

Esperientziak argi eta garbi azaleratu ditu Desokuparen eta hainbat Polizieta-ko kideen artean dagoen elkar hartzea. Bai eta komunikabide jakin batzuek enpresa sustatu dutela ere, okupazioaren aurkako kriminalizazio kanpainen berotasunean. Horrek guztiak beren negozio-bolumena handitzeko balio izan die. Heroitasun aura bat eraiki dute, sare sozialetan biraltasuna eta jarraitzaileen biderkatzea ekarri diena. Sistema Desokupa elikatzen ari da, baina auzotarrek brigadista garaikideen armada bat dute, auzo-sindikatuetatik behin eta berriz utzi bidea moztu diena. Hori izango da beren porrota. ●

Azkenaren aztoramena



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Mundu orain hiletan bizi izan ziren arbaso orain hilen umeak gara. Orobat ondorengo umeen biharko arbaso hil oraindik biziak. Jakina, kiribila ez ezik, mundua bezain biribila ere bada gizaldien ibilia. Jaio, egin, egon, hil. Bizien berezko hantustetxoak besterik pentsarazi arren, ez gara bereziak. Itxaro Bordak biribil esplikatua du bere *Abaro*-ko *Being Telluric* poeman (artikulu honetarako atrebentzia handiz prosara ekarrita): “Neanderthalen umeak gara, ez gara sobera aldatu. (...) Mundua aldatzeko sortuak ginela uste genuen, debaldetan naski”. Munduek, aroek eta haien mintzoek beti dute zer bait berdin: hil eta hil ari direla aspergabe. Eta, usuenik, mutu: ehorzketatik puska batera antzeman ohi zaio argiro amaiazen lur- eta huts-urriari.

Bakanki, ordea, azkenak bere burua nabarmentzen du. Urtero azaltzen da hedabideren bateko orri-bazterren batean goiburua: auskalo nongo auskalo zer hizkuntzaren azken hiztuna hil dela. Eta, gero, artikuluak kontatuko du, noiz tremulu noiz morbosoa, zazpi urte lehenago hil zela azken-bigarren hiztuna, eta beraz zazpi urte igaro dituela azken-azkenak bere guraso-hizkuntza bakarrikzketarako eta

ikertzaileen akuri-saioetarako baino ezin ahoratuta.

Pentsa zer izan behar duen: hizkuntza oso bat, bere historia, bere adierazi eta bere hiztun iragan guztien oihartzun eta guzti, hizkuntza oro den itsaso zabal hori, norbere eta soilik norbere barruan osorik gotortua, barrunbe guztiak sagailoz blaitzen. Itsaso bat mukuru erraietan. Azken hiztunaren heriotza uhate bat da, alimaleko uhate ireki bat: braust isuriko da ur mende-tsua noragabe, eta hantxe ezereztuko betiko. Hortik aurrerakoa, nostalgia, arkeologia eta, asko jota, autopsia. Bordaren hitzak berriro: “Eraiki dugun etxetik ez da deus geldituko, gure mintzoak ulertzen ez dituztenak baizik ez direlako gutaz oroituko”. Itsasoan arbolak aldatzen ibiltzearen pareko memoria, ia-ia.

Zenbait hizkuntzak eta haien hiztunek, aldiz, patu hurbil ez hain dramatiko omen dute: itsaso batzuk salbu-edo dira oraingoz. Baina tantak, ttanttak eta tantonak, horiek hizkuntza guztiek galtzen dituzte: hitzak, esapideak, joserak, bustidurak. Ez da noski itogin larria, bizilegea da, hizkuntzen lerradura *naturala*, are hizkuntzen osasunaren erakusgarria. Baina mundu hil-hu-

rrenen hizkera hil-hurrenen hiztunen egonezinak umela behar du gero.

Sartu da andre edadetua kontsultara. Eseri da, poltsa magalean estu-estu, medikuarenera joaten den aldiro bezala kirioak dantzan. Sendagile gazteak esan dio test bat egin nahi diola bistako arazotxo nola doan jakiteko: galdera batzuei erantzun, irudi batzuei behatu... “Erraza da, lasai”. Irudiak hurrenez hurren: baloi bat, errepide-seinale bat... behi bat. “Eta hemen? Zer ikusten duzu hemen?”. “Behi gorri bat”, andreak erantzun. Eta medikuari aho-ertza okertu zaio nahi gabe, ia-ia antzemanekin. Baina andreak, antzeman. Kontsultaratu baino are larrituago etxeratuko da egun horretan, bere begi oraindik sanoei egotziz hizkuntza-ttanta galdu-hurren baten inkomunikazioak sortutako arazoa. Jaio zen munduan bizikide zuen mintzoa baino gehiago irauten ari delako sentipen bitxi aztoraragarria bor-bor, oharkabea.

Ez alferrik, “Ez dun nostalgia, garai hura ez zunan hobia” esaten dio andre espontaneo batek Maitane protagonistari Iñigo Aranbarriren *Munduko tokirik ederrena* liburuko ipuinetako batean. “Zer da orduan”, Maitanek galde. “Nik zer zakinat ba, azkena geratzeko beldurra igual”. ●

Arrazoa lapurtu zidaten



MAIALEN ARTEAGA
KAZETARIA

Fenomeno bitxia da arrazoa galtzearena. Hainbat aditz erabili daitezke: galdu, ez izan, eman... *Lapurtu* gus-tatzen zait niri, arrazoa lapurtu zidaten. Zuzenagoa da, eufemismorik gabekoa; arrazoa ez baita berez galtzen norabiderik gabe. Norbaitek, zerbaitek kentzen dizu. Subjektu argi bat dauka ekintzak. Fenomeno bitxia da beraz, arrazoa lapurtzearena.

Gogoratzen dut nire ikasle garaietan, orain lagun mina dudan ikaskide batekin paper baten apuntatzen genituela elkarri lapurtutako arrazoiak. Bat eta huts, bana, bi eta bat, hiru-hiru. Izenaren ondoan, arkatzez margotutako marraz-txoez idazten genituen garaipenak, arrazoa golen eta saskiratzeen pare, nork bere defendatu beharreko eremuan huts ez egiteko partida bat bailitzan. Arrazoa lapurtzen dizutenean dolu bat pasa behar da, asimilazio prozesu bat. Nik pasa behar izaten dut, behintzat. “Dolu” hitzak gehiegizkoa dirudi, baina hala da. Ordu arte jakintza iturri desberdinetatik elikatu duzulako zure iritzia; izan gazte-txeko bileretatik, etxekoekin izandako eztabaidetatik, Durangoko Azokan erosi zenituen intelektualen liburuetatik, ikas-tetxeko ikasgai batean atera zenuen hamar hartatik, zure erreferenteak behin esan zuen horretatik... Arrazoiaren zi-

legitasunak pilatzen dituzu barnean. Adreiluz adreilu, ideia denak josten dituzu, eta zure identitatea gorpuztuko duen premisa multzo bat gordetzen duzu barruan. Hibernatzen uzten dituzu, eta etorriko diren eztabaidetan aurretiaz josi eta eraiki duzun dena kanporatzen duzu. Zenbat eta gehiago eraiki, arrazoa orduan eta hurbilago.

Baina barruko horrek *krak* egiten dit arrazoa lapurtzen didatenean. Segundo gutxi batzuetan Richter eskalako 7,5eko lurrikara bat sentitzen dut sabelean, eta hibernazioan zeuden ideia denak, adreiluz adreilu eraikitako argumentu guztiak arrakalatu egiten zaizkit. Gora doaz pitzadurak, balantzaka hasten zaizkit zutabeak, eta ez zaizkit ia zutik mantentzen. Kontziente naiz: sistemak baino arrakala gehiago ditut momentu hone-tan. Arrazoiaren oinarriak eraitsi egiten dira; eraitsi egiten naiz. Dolua hasi behar dut orduan, lapurtu didatenaren galera onartzeko prozesua.

Ez du zertan, baina askotan gogorra izaten da. Barrenean deseraiki zaidanetik hasiko naiz orain eraikitzen. Eta galera bati esker irabazi dezakedanaren paradoxan, pentsatzen jarri naiz, ea ez ote naizen bilakatzen naizena baino apur bat aberatsago arrazoa lapurtzen didaten aldiro. ●

Hitzak



UXUE APAOLAZA

Irudi batek ez du mila hitzek baino gehiago balio. Milatik gora hitz behar izaten dira irudi bat azaltzeko, eta hor daude liburuak, ikusten ari garena ulertarazi nahian. Baina hitzez armaturik, Twitterreko voyeur, irudi batek tripak lehertzen dizkizu. Eta ez dago justifikatuko edo arinduko duen hitzik.

Eta sarrera horrekin, ezin jakin gainera zertaz ari naizen. Zer irudik lehertu dizkizu zuri tripak aste honetan? Hitzak behar adierazteko. Al Aksa, Meskiten Zelaigunea, Ramadan, Jerusalem, Gaza, Palestina, Israel, Polizia, kolonoak, etxegabetzeak, gobernu-eraketa, suziriak, Gantz jenerala... Odola, zerraldoak le-

poan hartuta, haurrak hilda, haurrak dardarka. Eta egunarekin jarraitu behar.

Erazagoa da azken irudiei hitzak jartzea, “onartezina”, “ezin da horrela jarraitu”... Baina badaiteke, bai, noski, hitz askori sorgor egongo baikara: ura, atxilotuak (ez, bahituak), egotziak, birrinduak, ukatuak, pobretuak... Autodefentsa entzutetsurako eskubiderik gabe.

“Hamasek espero ez dituen kolpeak jasoko ditu” esan du Netanyahu. Guk ez. Palestinarrek bai, bizirik dirauten artean (hori baita beren delitua). Baina “mundua horrelakoa da”, “auzi konplikatu da”, “hori zortea hemen jaio izana”... Hitzak. ●

Azkar eta agudo



JOXERRA AIZPURUA
INDUSTRIA INGENIARIA

Aitak lantegi berean eman zuen bizitza osoa. 40 urte pasatsu igaro zituen handik mugitu gabe, baina ez beti langintza berean. Lan egiteko erak, makinak, lankideak, bezeroak eta produktuak ere, ez ziren gehiegi aldatu eta planifikazioak ez ziren urtean urterako egiten, urte batzuetarako baizik. Igaro den mendeko 80. hamarkadan amaitu zen aitaren enpresa, eta berea zein milaka langileren ibilbide laborala.

Gaur egun, laneko mugikortasuna, lan prozesuen aldakortasuna eta produktuen iraungitasuna ohikoak dira gure enpresetan. Gizartea azkar ari da aldatzen, eta teknologia are azkarrago; lankideen arteko berriketetan maiz nabarmentzen dugu azkartasun horrek ez digula gauzak ongi egiten uzten, ezin dugula ezertan sakondu hobeak izateko, zerbait berria sortzen aritu behar dugula beti, eta azkar batean gainera.

Pandemiak gauza asko eten edo moteldu ditu. Ostalaritza itxita, hegazkinak lurrean, kultura geldirik, kontsumoa motelduta, enpresa asko aldi baterako enpregu-erregulazioan eta beste asko lan telematikoan. Hortaz,

Pandemiaren aurretik teknologia asko merkatura ateratzeko zorian zeuden. Agian ez zeuden erabat osatuta eta frogatuta, baina hortxe zeuden, erabilerarako prest

etenaldia lanak hobeto antolatzeko eta gehiago ikasteko baliatu behar genuela pentsatzen genuen batzuek. Europan itxialdia agindu zenetik ia 15 hilabete joan dira, eta atzera begiratuz gero, teknologiak jauzi pentsaezinak eman dituela baieztatu dezakegu. Herrietako kultur bonoak, jateko menu interaktiboak, udaletako pleno telematikoak, ikastetxeetako ikasgaiak telematikoki

etxeratze bidea, administrazioarekin harremana erabat digitalizatzea, eta beste kontu asko pentsaezinak ziren 2020ko otsailean eta gaur normalak dira. Zer gertatu da?

Pandemiaren aurretik teknologia asko merkatura ateratzeko zorian zeuden. Agian ez zeuden erabat osatuta eta frogatuta, baina hortxe zeuden, erabilerarako prest. Pandemiak erabat apurtu ditu mugak eta urtegi baten hormak apurtzean urak anarkikoki isurtzen diren bezala, teknologia gure bizitzaren esparru guztietara hedatu da eta gainera, teknologia bat ezarri aurretik erabilgarritasuna eta lagunkotasuna zaintzen baziren ere, txanda honetan alderantziz gertatu da, hots, gizakiok gure ohiturak eta usadioak moldatu behar izan ditugu teknologien esanetara.

Beraz, pandemiak gorputzaren mugimenduak moteldu baditu ere, barneko organoen funtzionamendua bizitu egin du eta lehen enpresa asko teknologia berriei jarraitzeko erdipurdi bazebilen ere, hemendik aurrera asko eta asko izango dira gorriak ikusiko dituztenak. ●



943 64 17 10
www.endanea.com

Bertakoaren balioa

Eman bertako produktuei merezi duten tokia. Gurean, Hondarribian ekoiztutako landareak aurkituko dituzu

Online denda



KULTUR FAKTORIA



SARRERAK SALGAI www.faktoria.eus

2021eko
Udaberria



Maiatzak 28, barikua 18:30etan

MALEN ATXA
eta Egoitz Uriarte

[musika]



Maiatzak 29, zapatua 18:00etan

**ESTI ETA
MIKEL MARKEZ**

[musika]



Ekainak 5, zapatua 12:30ean

KONPOST

[musika]



Ekainak 5, zapatua 18:00etan

ERABATERA

[musika]



Ekainak 6, domeka

12:30ean eta 18:00etan

BULEGO

[musika]



Ekainak 12, zapatua

12:30ean eta 18:00etan

EÑAUT ELORRIETA

[musika]



Ekainak 13, domeka 18:00etan

**ELKAR EZAGUTU
GENUEN EGUNA**


[antzezlan eta literatura]



Ekainak 19, zapatua 18:00etan

IBIL BEDI

[musika]





Ekainak 26, zapatua 18:00etan

**MARIA RIVERO
& tribu banda**

[musika]

**Egin zaitez
bazkide**

BAZKIDEEK SARRERAK
ESKURATZEKO LEHENTASUNA
IZANGO DUTE ETA %15EKO
DESKONTUA FAKTORIAKO
ZERBITZU GUZTIETAN!





KOOPERATIBA BAT, BI GURPIL ETA DUINTASUNA

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Banatzalea da filmeko protagonista berria. Hamarkadatan aritu da paper horretan, baina beti bigarren planoan. Interneta bezalako faktoreek eman zioten lehen bultzada pertsonaiari eta pandemiak borobildu du jokaldia; banatzalea lehen lerrora ekartzeraino. Eszenatokian lekua irabazia du. Paper garrantzitsua da berea. Beste aktoreek, baina, *caché* hobea dute, baldintza duinagoetan ari dira lanean eta ikusleen onespina ere handiagoa da. Bada, ordea, banaketa eta banatzailearen lanari errespetua eta duintasuna itzuli nahian aukera berriak irekitzen hasi denik ere.

Geroz eta gehiago dira bizikleta darabiltenak banaketarako ibilgai-lu. Bi gurpilen gainean aurkitu diote alternatiba prekarizatutako sektoreari. Eraman kooperatiba da pausoa eman duenetako bat. Gasteiz dute lantoki. Paul Iano ARGIA-ko kolaboratzaile eta Eraman kooperatibako sortzaileetako batek eman dizkigu erreportaje hau egiteko zenbait gako, Juan Latorre Irigoien lankidearekin batera, ondo ezagutzen baitute sektorearen egoera.

Ianok, estatubatuarra sortzez, aski ongi ezagutzen ditu jaioterrian Amazon edo Microsoft bezalako enpresek suntsi-

tutako auzo eta herriak, baita Airbnb edo Uber moduko enpresen hastapenak ere. Azken hauen lehen efektuak ikusten hasiak zirela alde egin zuen herrialde-tik, baina piztua utzi zion radarra. Azkar identifikatzen ditu enpresa eredu horiek. Euskal Herrian bizi denetik lan egin du Glovon eta Telepizzan, besteak beste, eta kontatu ditu barruan direnek bizi dutena (irakur ditzakezue 2019an argitaratutako 'Glovolizazioa' erreportajea, 241. Larrun; eta 2020an argitaratutako 'Prekarietatean dago sekretua' erreportajea, 2.672. aldizkaria).

Geroz eta itoago dauden langileen eskubideak murriztu eta

lana gutxi batzuen mesedetan egitea normaltzat hartzea lortu dutenen hurrengo pausoa izan da algoritmo bidezko funtzionamendua. Langileria prekarizatzeko sistema berria asmatu dute, arauak “ausazko algoritmo kaltegabe” batzuek jarriko balituzte bezala, ugarizabek eskuak garbitzen dituzten bitartean. Sinestarazten digute erabakia ez dagoela euren esku, algoritmoak direla bat edo beste erabakitzen dutenak. Nork programatzen ditu, baina, algoritmo horiek?

Bideo-joko bateko partaide bilakatzeko da ia-ia langilea. Proba handirik pasa gabe ematen dizute aukera lanean hasteko. Aplikazioa deskargatu eta hasi. Esaten dizute zuk nahi duzun ordutegia jartzeko aukera izango duzula, egun honetan edo bestean jai hartzeko arazorik ez dagoela... baina behin martxan hasita azkar ohartuko zara aukera hori egon badagoela, baina ez bazara ordu jakin batzuetan aktibo egoten puntuak galdu eta zerrendan behera egingo duzula, beraz, ez zaizkizula zuk

ezarritako eremutik gertu dauden banaketak tokatuko; eta denak du antzeko metodoa.

Hori guztia ez dizu nagusiak zuzenean bulego batean esaten. Aipatu algoritmoen mende zaude eta ez dago ihesbiderik. Bideo-jokoak azpimarratu dira lerro batzuk lehenago eta ez alferrik; enpresa hauetako askok joaren teoria aztertzen duten departamentuak dituzte, analizatzen dutenak adikzioaren atzean dagoen psikologia. Langilea jokoan harrapatzeko baliatuko dutena.

Bideo-joko bateko partaide bilakatzen da ia-ia langilea. Ez bazara ordu jakin batzuetan aktibo egoten puntuak galdu eta zerrendan behera egingo duzu

Joko orok pizten duen lehiakortasuna sortzen du honek. Langileen artekoa. “Sinestarazten dute ardura indibiduala duela langile bakoitzak baldintza hauek onartzeagatik, baina ardura kolektiboa dela ulertu behar dugu”, azpimarratu du Paul Ianok. Kultura indibidualista batean errazago sartzen da eredu hau, AEBetan kasu. Protestaren edo ezinegonen bat sortzen bada beti dago erantzuna: “Algoritmoak aldatuko ditugu”. Baina jokoak jarraitzen du.

Internet bidezko salmentak izugarritzko gorakada izan duen bitartean, banatzaileen lan-baldintzek ez dute joera berdina. Prekarietatea da nagusi sektorean eta krisiak areagotu du egoera. Nora doaz, ordea, irabazi horiek? Pobreak pobreak eginez aberasten diren gutxi batzuen poltsikoetara. Facebook fenomenoaren testigua hartzeko langilea zapaltzeko eskrupulurik ez duenaren diru-zorrora. Amazonera. Lehen bertako merkataritzan geratzen zen dirua da orain enpresa multinazionalera doana, ez baitugu lehen baino diru gehiago gastatzeko, saltokia aldatu dugu.



ERAMAN KOOPERATIBA

Paul Iano eta Juan Latorre Irigoien

Lehen banaketa 2020ko maiatzean

Zer da banatzen duzuen?

Sektore honetan, beste guztietan bezalaxe, dibertsifikazioa da garrantzitsua. Produktu bakarraren banaketan zentratzen bazara, erortzeko arriskua handiagoa da. Denetik egin beharra dago. Gure kasuan apustu handia egin dugu prentsarekin. Goizero banatzen dugu *Berria* eta astero ARGIA. Hasieran kosta zitzaigun bi aldeentzat egokia izango zen banaketa sistema jasagarri bat bilatzea, baina lortu dugu eta funtzionatzen ari da. Horretaz aparte, Koiki plataformaren bidez Gasteizko paketeria banatzen dugu eta bidalketa egin nahi duenari aukera eskaintzen zaio. 35 jatetxe ingururekin ari gara lanean eta bertako zenbait komertzioaren banaketa egiten diegu bezeroei ere.

Nola antolatzen zarete?

Oraintxe 14-15 langile gara denera, bazkide eta langileak kontutan hartuta. Helburua beti da langileei txanda zehatzak eskaintzea, *gig* ekonomia ekiditea, lan profesional eta iraunkorra izatea, ez dadila pasarako lana izan; hemendik bizi ahal izatea. Saiatzeko gara egitekoak bilatzen gure gaitasun eta beharretara egokitu.

BADOA KOOPERATIBA

Nestor

Lehen banaketa 2021eko maiatzean

Zer da banatzen duzuen?

Prentsarekin hasi gara lanean. ARGIA-rekin iritsi gara tratua eta maiatzean hasi gara aldizkaria banatzen Irun, Hondarribia eta Hendaian. Lehendik aritua naiz Eraman kooperatibarekin prentsa banaketan Hondarribian eta Andoainen, eta hortik atera zen Badoa sortzeko ideia.

Hurrengo pausoa da jatetxeetarako eta herriko komertzioetarako saltoa. Geroz eta ohitura handiagoa dago etxera eramateko zerbitzua eskatu eta eskaintzekoa eta hor egon nahi dugu.

Nola antolatzen zarete?

Ekonomia Sozial Eraldatzailearen baloreetan oinarritzen den Bidasoaldeko BDS kooperatibak egin zuen deialdi bat formakuntzarako eta han ernatu zen Badoa. Hiruzpalau lagun gara oraingoz eta denetarikoa lanak egiten ditugu: komertzial lanak, banatzailearenak, mekanikari lanak... BDS ari zaigu gestioan laguntzen eta eskertzen da ibilbidea eginga duen Eraman ondoan izatea, gure logistika antolatzerako garaian, esaterako, laguntza handia da; "Hau nola garraiatuko dugu?, zein da modu egokiena bizikletak muntatzeko?"... horrelako zalantzak asko baitira.

Lurraldean sinesten dugu, gertukoan, tokikoa zaintzeko jasagarritasunean, eta balore horiek oinarri hartuta lanpostu duinak sortzeko aukera ikusi dugu Badoa kooperatibarekin.

ERUEN

Cristian

Lehen banaketa 2020ko urrian

Zer da banatzen duzuen?

Orain gutxira arte *Berria* egunkariaren banaketa egin dugu goizero eta maiatza hasieran ekin diogu ARGIA banatzeari. Hasieran Eraman kooperatibako kide moduan aritu nintzen lan horretan, haiei eskaini baitzieten Arrasateko banatzaile lanak egiteko. Etorkizun hurbilean jatetxeetako banaketa eta paketeria egitea da helburua.

Nola antolatzen zarete?

Hastapenetan gaude. Aktibo ni bakarrik nago oraindik, nahiz eta badauden beste bi lagun lanean has-teko prest, bizikleta nik bezainbeste maite dutenak, eredu jasagarriaren aldeko apustua egin asmo dutenak. Eraman kooperatiba da guretzat ipar-orratza. Horretara heldu nahi dugu, baina zailtasunak ditugu finantzazio aldetik. Jende gaztea gara eta ez daukagu kapitalik. Zorionez badi-tugu gasteiztarren babesa eta laguntza. Beraz, gogor lan egitea tokatzen zaigu kooperatiba sortzeko eta gure lokala edukitzeko saltoa emateko.





MARIO LEZAUN

GALIARRAK VS ERROMATARRAK

Lehena ez izateak baditu bere abantailak. Ikus daitezke aurrenak eginda koaren emaitzak eta dituen ondorioak. Ondoren bi aukera daude: aurrean tokatzen zaion oro zapaldu eta azpiratzen duenari etxeko ateak ireki eta barruraino sartzen utzi dena suntsitu arte; edo kontziente izanik hondeamakinak izugarritzko indarra dutela eta gelditzea zaila dela, ahalegindu, haste-ko, zure inguru txikia salbatzen eta pixkanaka zabaltzen joan. Galiarrek Erromatar Inperioa eraistea nekeza dela? Bai, baina txikiak bila ditzake zirrikituak handiaren dependentziarik gabe duin bizitzeko.

COVID-19ak sortutako pandemiaren erdian jarri zuten martxan Gasteizen Eraman kooperatiba. Juan Latorrek Europa iparraldean ezagutu zituen bizikletaz banaketa egiten duten enpresak, baldintza duinetan ari direnak, eta hemen sektorearen gainbehera ikusita, aukera ikusi zuen antzeko zerbait antolatzeke. “Kaleak hutsik, komertzioa eta tabernak itxita, eta banatzaileak gurditxo bete paketerekin hara eta hona korrika. Hori zen konfinamendu garaiko egunerokoa eta muturren aurrean ikusi dugu etor daitekeena. Geroz eta gizarte indibidualistago batean bizi gara, banaketa prekarizatutako lana da, Glovo bezalako enpresak terrenoa irabazten ari dira, eta hau da unea bide bat edo bestea hartzeko”, azaldu du. “Bestela

non geratzen dira harremanak? Non geratzen da kalea? Gure helburua da arrisku hau ikusaraztea; ez da aukera bat etxean geratu, atea itxi eta ez-ikusiarena eginez ardura gainetik kentzea.

Enpresa hauetako askok jokoaren teoria aztertzen duten departamenduak dituzte, analizatzen dutenak adikzioaren atzean dagoen psikologia. Langilea jokoan harrapatzeke baliatuko dute

Euskal Herrian oraindik badago langile borroka bat, kolektibotasuna, eta ez da zerbait urrunekoa egiten kooperatiben mugimendua”, jarraitu du. “Banaketari eta banatzaileari zor zaion errespetua eta duintasuna itzuli eta era jasangarri eta justuagoan gure bizimodua aurrera ateratzeko formula dela iruditu zaigu, jendeari alternatiba bat eskainiz”, gehitu du Paul Ianok.

Ikusten ez den lana da eta gizartean ez da lan profesional moduan tratatzen. Nori ez zaio burutik pasa sekula “gizajoa, beste ezer lortu bitartean banaketa egitea besterik ez du” edo antzeko zerbait. Banatzaileari propina ematea ez da kasualitatea. Eta neurri batean ere badu egiatik, ez baita arraroa beste aukerarik ez duelako egitea lan hori kasu askotan. “Bizikleta gainean ikusten badugu banatzaile bat, normalena da prekario aritzea lanean. Baina ez bizikletagatik, banaketagatik baizik, lana bera baita prekarioa”, argitu nahi izan du Ianok.

Horregatik sortu dute Eraman kooperatiba. Banaketa profesionalizatzeko, bai zerbitzua eta bai jendearen ikuspegia. Lan-baldintza egokiak falta diren arloan lanpostu duinak sortzeko. Hutsuneak betetzeko. Modu jasangarrian, bertako komertzioa bultzatuz, beste edozein ibilgailu heltzen ez den lekura bizikletaz heltzeko. Kultura bat sustatu nahi dute, bizikleta kirola egiteko edo lanerako tresna izatetik harago, bizitzaren parte sentitzea nahi dute, hiria ere bi gurpilen gaineko perspektibatik ulertzea. “Baldintzak duinak badira, nik sekula izan dudana lanik politena da”, azaldu du Latorrek, segidan gehituz: “hiri baterako ibilgailurik efizienteena da; kutsatzen ez duena, azkarra eta beste edozein ibilgailu heltzen ez den lekuetara sartzeko egokiena”.

LOGISTIKAREN KONPLEXUTASUNA

Iragarkietan etxeko atea jo eta irribarre eder batekin paketea entregatzen duen mezulariaren irudiak ez du egia gehiegirik kontatzen. Ez behintzat egia osoa. Herritarron buruetan sartzen baita horixe dela banatzaileak egiten duen bakarra. Baina atzetik badu logistika oso bat, konplexua. Ianok eta Latorrek azpiko lan hauek ikusaraztearen beharra azpimarratu dute, horrek ere banatzailearen iruditeria profesionalizatuko duelakoan. “Administrazio lanez gain, egunerokoa antolatzeke gaitasuna behar da, banaketara ateratzen garenarako, paketeriaren banaketa efizientea izan dadin ibilbidea planifikatu beharra dago eta horren arabera kokatu kargak kutxan. Lan mental handia eskatzen du. Jatetxeetako banaketak egiten badira, puntako orduetan burua hotz mantentzen duen jendea behar da lanerako, banaketa guztia atzeratuko ez bada”.

TEKNOLOGIA ONERAKO ETA TXARRERAKO

Erabilera egoki bat emanez teknologia berriek aukera batzuk irekitzen dituztela ere ezin uka. Zertarako erabiliko den da gakoa. Batzuek gutxi batzuen mesedetara egokitutako algoritmoz osatutako enpresa zapaltzaileak martxan jartzen dituzten bitartean, besteak ari dira guztiek komunean dituzten lanak egitea errazteko plataformak sortzen. Bizikletaz banaketa egiten duten eta balore batzuk

“

Baldintzak duinak badira, nik sekula izan dudan lanik politena da”



DOS POR DOS

partekatzen dituzten kooperatiben aplikazioa sortu dute: Coop Cycle. Ez da soilik administrazio lanak egiteko beharrezko duten tresna partekatua, bezeroak banatzailearekin harremanetan jartzen dituen espazioa ere bai. Bertan dira, dagoeneko, erreportajea aipatzen den Eraman Gasteizko kooperatiba eta baita Botxo Riders Bilboko kolektiboa ere.

Coop Cycle plataforman oraingoz bi horiek badaude ere, banaketa eredu honetako enpresa gehiago ari dira sortzen Euskal Herrian. Badoa kooperatiba sortu berri dute Bidasoaldean eta Eruen (izen probisional) ere martxan da Arrasaten, nahiz eta kooperatiba izaerarik oraindik ez izan lehen banaketak egiten dabil. Oraindik oinez hasi ez diren baina bide beretik doazen proiektuak badira herri gehiagotan ere.

Nora doaz irabazi horiek?

Amazonera. Lehen bertako merkataritzan geratzen zen dirua da orain enpresa multinazionalera doana, ez baitugu lehen baino diru gehiago gastatzeko, saltokia aldatu dugu

“Jendeak hautua egiteko unea da eta dirua ez da aitzakia, gure banaketa sistema ez baita garestiagoa”, azpimarratu nahi izan du Latorrek.

BANATZAILEEN FEDERAZIOA

Bakarraren zabalkundea baino egokiago ikusten dituzte tokian tokiko proiektuak. Herri, hiri edo bailaraka, baina hobe da bertan bertakoa aritzea, kanpotik inor etortzea baino. Gune bakoitzeko banaketak egiteko sistema jasangarriena da. Baina bilatu nahi diote alternatiba eskaintza zabalagoari ere: zer gertatuko da Euskal Herri mailako banaketa egiteko aukera suertatzen bada? Horrelako kasuetarako sortu nahi dute federazio bat, partaide independentez osatua, baina egoera jakinetarako batu eta eskaintza indartsu eta zabalagoa egiteko aukera emango diena. ●

HERNANIKO ZERO ZABOR HOZKAILUA

Eskolan jan ez dutena daramala edonork etxera

Maiatzaren 4tik, Hernaniko Txantxila auzo inguruan dabilen edonork eraman dezake janari ontziratua etxera, deus ordaindu gabe. Aski da makinako botoia sakatzea, konpostagarria den ontzian bildutako errazioa hartzeko. Langile eta Aratz ikastetxeetako jangeletan sobratutakoa da janari hau eta bertako ikasle zaharrenak arduratzen dira eskolan jan ez dutena kudeatzeaz. Udalak azaldu digu zergatik abiatu duten proba pilotu hau, eta zein diren begiz jotako ondorengo urratsak.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  MIKEL OLABIDE ZUZA

Ba al zenekien eskola jantokietako hainbat catering enpresek protokoloz ezarritako araua dela jantokian sobratutako janari guztia bota behar izatea? Hau da, protokolo hori jarraitu behar duten jantokietako langileek debekatua dutela sobratutakoa banatzea? Egunero jantokietan elikagaien %7-10 artean

xahutzen da, antzeko hozkailuen esperimentuaren arabera.

Maiatzaren 4tik aurrera, zentzugabekeria horri irtenbidea jarri diote Aratz eta Langile ikastetxeetan. Orain seigarren mailako ikasleen ardura da jantokian sobratu zaien janaria ontzi konpostagarrietan sartzeara, konpostagarria den material

garden batekin termozigilatzea, etiketa jartzea eta janariaren temperatura 65 gradutik 4 gradura eraisten duen makinara sartzeara. Eta behin osasun bermeak ematen dituen prozesu horren ostean, janariz betetako ontzi horiek kalean herritar denek eskura dagoen makinara eramatea. Eguneroko lan hori ez da makala, kontzientzia eta ardura hartzeko.

DENONTZAT IZATEAREN GARRANTZIA

Hernaniko Udalera jo dugu proiektu honen xehetasunen bila eta Ingurumen zinegotzi Mattin Aldaiak eta Garbitania enpresan hondakinen hezitzailea den Jone Notariok eman dizkigute azalpenak.

Pozik agertu dira, eragile askoren oniritzia eskatu duen proiektua martxan jartzea lortu dutelako: ikastetxeak, jangela langileak, Ausolan catering enpresa... "Normala denez, elikagaien osasunaren gaiak kezka sortzen ditu. Ez da hain erraza izan eta oztopoak gainditzen joan gara. Baina lortu dugu" azaldu du Aldaiak eta Notariok gehitu du bere ustez, azpiegitura indartsuak edukitzea izan dela inork ukatu ezin ahal izatea. Udalak bi ikastetxe horietan jarri ditu prozesu honetarako beharrezko diren azpiegiturak:





“Goiko irudietan, Aratz ikastetxeko seigarren mailako ikasleak Zero Zabor Hozkailua lehen aldiz betetzen. Ezkerreko orrian, Jone Notario Garbitaniako hondakin hezitzailea eta Mattin Aldaia Hernaniko Ingurumen zinegotzia”.

ontzi konpostagarriak, termozigilatze makina, etiketak eta hauen inprimatzeko makina, tenperatura eraisgailua eta bi hozkailu. Ikastetxe bakoitzeko azpiegitura hauetan 8.500 euroko inbertsioa egin du Udalak: bi ikastetxetan jarri denez martxan proba pilotua, 17.000 eurokoa da oraingoz proiektu honen gastua eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-laguntza bidez kostuaren %55 berdindu du.

Elikagairik ez xahutzeak badu Udalak lortu nahi duen beste helburu batekin lotura zuzena: hondakin organikoak gutxitzea. “Izan ere, jantokietan jaten ez diren elikagaiak kudeatu egin behar dira: jaso, ondoren garraiatu, eta azkenean erraus-tegiaren ondoko azpiegitura batean tratamendu bat eman. Horrek kostu bat du, eta hori dena ekiditea komeni zaigu” azaldu du Aldaiak. Tratamendu plantara eramaten duten organiko tona bakoitzeko 148,33 euro ordaindu behar dutela zehaztu du, “eta horri bilketa eta garraio kostuak gehitu behar zaizkio”.

Hondakineta botatzen ziren elikagai hauei irtenbidea bilatzerakoan, Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkartearengana jo zuen Udalak eta elkarte honek azaldu zion zein modutan daukan martxan “Hozkailu Solidarioa” programa Lasarte-Orian, Donostiako Tabakalera, Galdakaon, Gasteizen... Plentzian udalak ere jarria du Hozkailu Solidarioa eta Leioako Ostalaritza eskolak eduki zuen bere garaian (egun soberakina elikagai bankuetara bideratzen du).

Esperientzia haietan oinarritu ziren, baina ontziak herritarren eskura jartze-

ko formatoa ezberdina du Hernanikoak: beste herrietan hozkailu arruntetan (etxean dugunaren moduko hozkailuan) utzi eta hartu ditzake edonork jaki hauek, eta Hernanin janaria saltzeko erabiltzen diren makina horien alde egin dute, Valentzian ikusi zuten eredia ekarrita: “Makina hauek itxita daudenez, kontrolatua go daukagu. Botoi bat sakatu eta atera den ontzia eramaten du jendeak, ez ditu gainerako ontziak ukitzen. Seguruagoa da” azaldu du Aldaiak.

Hernaniko Zero Zabor hozkailuan gehienez 24 orduz edukitzen dituzte janari ontziak eta 108 ontzirentzat du lekua makinak. Lehen egunean oilaskoa eta bigarren egunean dilistak egon dira makinan herritarren eskura. Goizeko 9:00etan hornitzen da hozkailua eta lehen egunetan denak agortu dira bi ordu baino lehen. Horixe da izenean Zero Zabor daraman hozkailuaren helburua, guztien artean janariari probetxu ematea. Eta doan izateak denen eskura jartzen du helburu hori: “Inori ez diogu mugatu behar, edozein herritarrentzat da. Eta ez dugunez estigmatizazioan erori nahi, ez da batzuentzat edo besteentzat. Guztiontzat da, edozeinek erabili dezake, are gehiago, arduragatik erabili egin behar da”.

ONGI IRTETEN BADA, ZEIN DIRA HURRENGO URRATSAK?

Ikastetxeengandik ere jaso zuen kezka Udalak, zer egin sobratzen zen janariarekin. Notariok kontatu duenez, “herriko Lehen Hezkuntzako eskola guztiak elkar-

tu genituen bileran, proiektu hau azaltzeko. Proba pilotu gisa planteatu denez, bi ikastetxerentzako materiala genuen eta lehenik animatu ziren biekin hasi gara”.

Maiatzean jarri dute martxan Zero Zabor Hozkailua eta ekainean bukatuko dute ikasturtea eskolek. Beraz, hilabete eta erdikoa izango da proba. “Ongi irteten bada, zabaltzeko asmoa dugu”, baieztatu du Aldaiak. Bi eremutan zabaltzea ari da aurreikusten udala: batetik, gainerako eskolak ere ekimen honetan parte hartzera gonbidatzea, eta bestetik, jatetxeei ere aukera zabaltzea. Izan ere, Aldaiak adierazi duenez, proba pilotu honen berri izan dutenean jatetxeek egin diete eskaera Udalari, haiek ere kezkatuta daudelako botatzen dituzten elikagaiekin. “Ongi aztertu behar da nola bermatu elikagai horiek aprobetxagarriak izatea, osasuna bermatzeko kontu handiz ibilita”, gehitu du Aldaiak.

Elikadura burujabetzaz ere ematen du zer pentsa makina honetan herritar ororen esku geratu den janariak. Bere garaian herriko hainbat eskolak sukaldaria izan zuten, kanpotik eginda ekarri gabe bertan prestatzen zituzten jakiak, eta gaur ez duten aukera bazuten egun bateko soberakinei biharamunean jantokian bertan probetxua emateko, etxean egiten dugun eran. Eta horrekin batera, platerako osagai bakoitza nondik eta nolakoa erosi aukera zezaketen.

Zergatik ez amestu, eskoletako jantokiek elikadura burujabetza zerbitzatuko dutela kaleko hozkailu hauen bidez, etorkizunean. ●

ZARAUZKO PUTZUZULO GAZTETXEA

Borrokatutako alternatibaren kontakizuna

Eraisteko zorian dira Zarauzko Putzuzulo Amets Fabrika gaztetxea. Herriaren erdigunean eraikitzen ari diren hirigintza proiektua tarteko, behera botako dute 16 urtez herriko kulturaren habia eta Euskal Herriko eszenan erreferente bilakatu den espazioa. Gaztetxeko kideek lantegia zena okupatu zutenetik argi izan dute noizbait irtenaraziko zituztela, promotore ezagun baten jabetzakoa baita eraikina, eta aspaldikoa da orube horretan etxeak egiteko asmoa. Beste gaztetxe bat eskuratzeko negoziaketetan dabiltza Udalarekin, baina argi dute baldintza berak bermatu ezean ez direla Putzuzulotik joango. Hartaz eta honetaz hitz egiteko zabaldu dizkiote ARGIAri atea.


 MIREN OSA GALDONA  DAVID JULIA

Textil Gipuzkoana enpresa zena-
ren eraikinera sartu ziren herriko
zenbait gazte 2005eko urriaren
30ean. Herriak orduan ez zuen
gaztetxerik, eta gazteen beharrari jarraiki
okupatu zuten ohial fabrika. Atea zabal-
du bezain pronto eman zioten eraikina-
ren jabeari ekintzaren berri, sorpresaz ez
harrapatzeko eta kartak mahai gainean
jartzeko. Erantzuna jokaldia bezain az-
karra izan zen: batetik, salaketa zuzena
jarri zion deia egin zuenari, eta, bestetik,
mehatxu egin zien guztiei. Horietako bat
da Jorge Nieto *Abuelo*. Ordurako gazte-
txea lortzeko bi saiakera eginak zituzten,
bi asteko iraupeneko lehena, hiru hila-
betetako bigarrena: “Poliziak atera gin-
tuen bi haietatik, eta neurri batean hona
ere etortzea espero genuen, baina ez zen
halakorik gertatu”. Udal gobernuak euren
aldeko jarrerarik azaldu ez bazuen ere,
urak bare mantentzeren aldeko jarrera

erakutsi zuen, Salberdingo fabrika zaha-
rrean biltzen zen jende andana ikusita.
Marimin Aizpurua ere hasierako asan-
blada haien parte zen, eta Ertzaintza ez
bidaltzea jarrera “ulergarriena” izan zela
dio, uste baino jende gehiago baitzebilen
gaztetxe berriaren inguruan proiektua
gorpuzten. *Abuelok* aipatu du okupatu
ostean udalarekin izandako lehen hartu
emanetan esan zietela zein asmo zituz-
ten lurzoru haiekin, baina ez zietela data
zehatzik esan: “Salberdingo hirigintza
planarekin bi edo hiru urtera hasiko zi-
rela esan ziguten. Hasieratik izan dugu
mamua lepo gainean, baina 15 urte igaro
dira azkenean”.

90eko hamarkadaren lehen eta azken
urteetan gaztetxea lortzeko egin zituzten
bi saiakerekin alderatuz gero oso bes-
telakoa izan zen hirugarrena. Manuela
gaztetxea izandakoaren eta Putzuzuloren
arteana hiru urteko hutsunea egon zen,

gazte asanbladak hala moduz funtzionatu
zuen tarte hartan; ez espazio alternati-
borik ezta berau betetzeko indarrik ere.
Hala, belaunaldi berriek beste saiakera
bat proposatu zuten arte, baina bestelako
moldeekin egin beharreko jokaldia izan
behar zuen. Urtebete iraun zuen komu-
nikazio kanpainak, eta gazteak sartzeko
ez ezik, herriaren babesa eskuratzeko
ere balio izan zuen. “Zarautzek gaztetxea
behar zuela argi genuen, baina bero-be-
roan okupatzea zentzu gutxiko jarrera
zela ere jakitun ginen. Orduan gaztetxea
herriaren behar gisa irudikatuko zuen
komunikazio kanpaina egitea otu zitzai-
gun”, dio *Abuelok*. “Badator” izenarekin
hasi ziren ekintzak egiten, izan pintadak,
kale antzerkiak edo informatzeko deial-
di irekiak. “Leku asko tanteatu genituen.
Kokapen aldetik erdigunetik gertu ego-
tea nahi genuen, baina Zarautzen ez da
erraza halako lekuak topatzea”. Auzoan





dagoen bolatokia hartu zuten aitzakia gisa okupazio ekintza gauzatzeko: “Bolo txapelketa bat antolatu genuen, eta 200 pertsona azaldu ziren. Kalejiran etorri ginen bolatokitik Putzuzulora. Hor hasi zen gaztetxearen ibilbidea”. Zapaburua eta kolore berdea ziren identifikatzeko elementuak, eta animaliaren metamorfosia lez, ibilbideari amaiera emanez Putzuzulo izena jarri zioten.

Ongi gogoratzen da Xakela asanbladako kide Leire Makazaga eraistearen alarma piztuarazi zuen uneaz: “Belaundi gazteagokook ere bagenekien bota nahi zutela. 2019ko udaberrian gaztetxearen inguruko eraikinak botatzen hasi ziren, eta pilak jarri behar genituela pentsatu genuen, kontu serioa zela ikusi genuen”. Politikariak hauteskunde kanpaina betean zeudela aprobeixatuta, hautagai bakoitzari gaztetxearekin zer egin nahi zuten galdegin zioten. EAJko Xabier Txu-

rrukak irabazi zituen bozak, eta berarekin hasi zen gaurdaino luzatu den negoziaketaren prozesua: “Alkatearekin elkarriketak hasi bezain azkar, udalak baimena eman zuen Putzuzulo eraisteko. Ia dena bota zuten, aldameneko eraikin osoa. Uda hartan kalean ikusi genuen gure burua, baina gure asmoekin jarraitu genuen”.

Bilera “dezente” egin dituzte ordutik, udaletxean zein gaztetxean. Klara Lazkano Danda gazte asanbladako kidea da, eta Makazagak esandakoari eutsi dio, azpimarratuz eurak ez direla bertatik joango udalaren aldetik ez badute baldintza bereko proposamenik jasotzen. Gazte dinamikaren erdigunean kokatzen dute gaztetxea, eztabaida eta antolaketa politikorako babesgunea den heinean, eta etorkizunean ere hala izaten jarraitu behar duela dio, gero eta “despolitizatuago” dagoen gazteria biltzeko “funtsezko plaza” baitira gaztetxeak.

BESTE EREDU BAT HELBURU

Espazio propio baten bila sartu ziren egungo Putzuzulora duela 16 urte Marimin Aizpurua, *Abuelo* eta beste hainbat gazte. Bada, zertarako? Alternatiba sortzeko eta eraikitzeko gogoan jarri dute indarra biek, eta kultura nahiz politika azpimarratu dituzte faktore nagusi bezala: “Zarautzen orduan ez zegoen ez Modelo (herriko antzokia) ezta toki gehiegirik ere kultura arloko ekimenak antolatzeko. Kultura alternatibo bat sortzeko beharrak ekarri gintuen hona”, dio Aizpurua, eta hargatik jendeak errezeloz begiratzen ziela. Gerora, ordea, gaztetxeak ikuspegi zabalagoa lortu duela iritzi dio, mila-ka ekimen egin baitira bertako oholdtan, haurrentzat, gazteentzat nahiz helduentzat, eta halakoek jendearen babesa eskuratzeko balio izan dutela: “Hainbat aiton-amona gaztetxean topatu ditugu euren biloben kontzertuak ikustera eto-

rrita". Arraio irratia ere prozesuaren parte garrantzitsua izan da. 15 urte bete ditu aurtun, eta egitarau zabala osatu dute urtemuga ospatzeko. Nomadak lez eta ondo bidean, gaztetxeari jarriki egoitza berrian emititzen jarraituko dutela dio Aizpuruak, eskutik helduta baitoaz asanblada eta irrati librean.

Kultur plaza ez ezik, molde berriei heltzeko lekua da Putzuzulo. "Guk guretzat, inorri ezer eskatu gabe, gure modura, gure akatsekin eta gure gauza onekin egin dugun proiektua da. Hori ere oso garrantzitsua izan da", nabarmendu du *Abuelok*. Hainbat proiekturen aterpe izan da Putzuzulo. Bitxikeria moduan aipatu dute gaztetxearen aldameneko eraikina, iazko udan eraitsi zutena, Euskal Herriko skate parkerik handienetakoa izan zela denbora luzez, eta edozein txokotako skaterrak ibiltzen zirela bertako aldapetan gora eta behera: "Ez zen munduko jenderik politizatuena, baina eurak ere honen parte ziren, eta izugarritzko mugimendua ekarri zuten". Alta, izan ziren urteak non atzetik zetorren gazteriarri kosta egiten zitzaion Putzuzulo bere sentitzea. "Gure buruari galdetzen genion ea non zeuden gazteak. Koadrila bakoitzak bere lokala du, eta horrek individualismora mugatzen du euren arteko jarduna. Gainera, lokalak ordaindu egin behar dira!", gehitu du Aizpuruak. "Beharakada" baten antzera definitu du Makazagak, eta Danda gazte asanblada sortzearekin batera gaztetxean muturra sartzen hasi zirela. "Gu ere Amets Fabrikaren parte sentitzen gara, eta etorkizuneko belaunaldiak ere halako espazio bat izateko borrokan jarraituko dugu".

AMETSAK LEKU ALDATU DAITEZKE

Apirilaren 17an egindako prentsurrekoan jakinarazi zuten Putzuzuloko kideek alkateak adierazitako azken berria: GLK Altzariak pabiloia izandakoa erosi duela udalak, eta gaztetxea han birkokatzeke asmoa duela. Berri pozgarritzat jo dute mahaiaren bueltan daudenek, baina Putzuzuloren eta udalaren arteko hitzarmena oraindik ixtear dagoela nabarmendu dute; adosteke baitaude, besteak beste, erabilera nahiz kudeaketa Putzuzulo Kultur Elkartearen esku uztea, eta etorkizunean ere Zarautzen gaztetxe bat egongo dela ziurtatzea. "Ikusi dute ezin gaituztela, besterik gabe, espaziorik gabe utzi. Gauzak ongi egin direnaren erakusle izan da, eta 2006an egin bezala, orain ere udalak konpromisoa hartzea espero dugu", azaldu du Makazagak azken erabakien harira.



Herrigunetik geroz eta gehiago ari direla aldentzen aipatu du *Abuelok*, kontziente direla hortaz. Hori gutxi ez eta, sartu aurretik asanbladako kideak bada-kite eraikin hori ere eraitsi egingo dutela etorkizunean, eta ez dute nahi mamu hori berriz lepo gainean sentitu. "Urbanizazio planean hor etxeak egiteko asmoa dago, beraz hortik ere inoiz irtenaraziko gaituzte, Zarautzen gaztetxe iraunkorra egiteko konpromiso finkoa eskatzen dugu". Udalaren jokaldiari letra txikia irakurri behar zaiola dio Aizpuruak, ez baita kasualitatea pabiloi hori erosi izana. "Momentuz oso ondo geratu dira herriaren aurrean, eta izango da 'joe gaztetxeakoak, udalak lokala erosi die!' pentsatuko duenik. Gauza da urte batzuetara izugarritzko dirutza atera ahal izango dutela pabiloi horri esker", dio Aizpuruak.

Putzuzulotik joatea inposatutako erabakia den heinean, eta Makazagak dioen moduan, "baldintza berdineko adostasunik ezean" ez direnez bertatik mugituko, agenda oparoa osatzen jarraitzen dute astez aste. COVID-19ak eragina izan du gaztetxean, dudarik gabe, autofinantzazioa baita euren diru-iturria, eta jenderik ezean, ezin itsulapikoa bete. Halere, gogotsu bezain indartsu aritu dira azken urtebetean kontzertuak, hitzaldiak nahiz bestelako ekimenak antolatzen: prest daude Amets Fabrika birsortzeko. Eraikin berriak jende gaztea erakarriko duela espero dute, eta ilusio handiz helduko diotela erronkari. "Hasieratik hor badaude, espero dut belaunaldi gazteek gaztetxea gertuago sentitzea", aitortu du *Abuelok*. Eta gakoa Aizpuruak jarri du: "Lokala ez da garrantzitsua, espazioa leku egiten duten pertsonak baizik". ●



ARABAKO BINAKAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2021

FINALA

MAIATZAK 22, LARUNBATA,
LEGUTIO, KIROLDEGIAN, 17:30ean



1.BIKOTEA

Iñaki Unai
Viñaspre Anda
Simon Delika



2.BIKOTEA

Manuel Oihane
Bendala Perea
Garcia-Donas Perez de Mendiola



3.BIKOTEA

Martin Manex
Abarrategi Agirre
Sarrionandia Arriolabengoa



AURKEZLEAK

Nieves Eli
Del Alamo Plazaola
Gil Zubizarreta

www.bertsozale.eus/araba **Sarrerak:** www.bertsosarrerak.eus

Babesle nagusiak:



artepan



M Mendiola
Optika



Antolatzailea:



arabako
bertsozale
elkartea

ARGIA

EUSKARA

urtez urte ontzen Arabako Errioxan

Arabako Errioxako bost lagun elkartu dira mahaiaren bueltan euskararen inguruan eztabaidatzeko. Bastidatik ibiltzen hasi eta Moredaraino, upategi handi batzuk eta turisten gorakada gorabehera, ez da paisaia gehiegi aldatu azken berrogei urtetan. Hizkuntza paisaiari begira jarritz gero, ordea, aldaketa ugari izan dira; hala ere, konformagaitzak dira Esti Besa Sanchez, Andoni Landa Arozena, Dani de Ayala Castaño, Idoia Marauri Bernedo eta Edurne Azkarate Sobrino. Dabilen ardoari muzinik ez.

 RUBÉN SANCHEZ

 ALEA

Erreportaje hau Arabako Aleak argitaratu du eta Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

Andoni Landak, Azpeitiko Nuarbe auzoan euskara hutsean sortua, eskolan ikasi zuen gaztelania, gaztaroan; hala ere, hizkuntza kontzientzia itzalia izan zuen, buruak solasaldian maiz errepikatu den “klik” egin zion arte, Iruñean lehenik, eta, batez ere, Arabako Errioxan.

Esti Besa Villabuenakoa da, haurtzaroan, ardo bila joaten ziren *los vascos* ziren; 11 urte zituela, familia Gipuzkoako Aretxabaletara aldatu zen; euskararekin hiru “klik” egin ditu: lehenik, euskara euskaltegian ikasi; gero, lagunekin euskaraz egin (eta eginarazi); eta azkena, Lorentxo bikotekideak eta biek hika egin.

Dani de Ayala guraso erdaldunek bidali zuten ikastolara; Gasteizera unibertsitatera joan zenean, hainbeste euskaldun eta euskalkirekin, Ekorakoa zela esateko eta bere euskararekin lotsaturik, lehen hiru hilabeteak isilik eman zituen. “Klik”.

Idoia Marauriren gurasoak, bera jaio zelarik, euskara ikasten ari ziren, eta euskaraz hitz egiten zioten. Lehen Hezkuntzan zela eten zen etxe barruko komunikazioa euskaraz. Gaztaroan, Leioan ikasi zuen: lehen urtean pisan Villabuenako

bat eta Lizarrako beste batekin, bere euskara “berdina” zen; bigarren, ordea, Oñatiko bat tokatu zitzaion, ez zion ezer ulertzen, eta egun batean zera bota zion: “Mesedez hitz egin polikiago”. Eta ezpainak irakurtzen saiatu zen. “Klik”.

Edurne Azkareteren familia erdia euskalduna eta erdia erdalduna izaki, aldi berean ikasi zituen biak; Maraurik moduan, pasatu zuen bere ukazio aroa, eta euskaraz bizitzen urtean aste bat besterik ez zuen ematen: bertso udalekueetan. Nahi gabe ere ligatu zuen umetan, deus ulertu gabe denari bai erantzuten zion lapurtar batekin. Txantxak alde batera utzita, joan-etorri asko izan ditu euskararekin azken “klika” izan zuen arte.

Dena den, denek aitortu dute behin euskaraz hasiz gero, belarria berehala egin zitzailea euskalkietara ere, eta gainera, besteek beraiek gaztelaniaz entzutean, are barre gehiago egiten dutela, daukaten azentuagatik.

ARABAKO ERRIOXAKO IZAERA

Esti Besa Iruñean 13 urtez bizi eta euskara irakasten jardun zen; Arabako Errioxan zailago egin zitzaion euskara-



ren aldeko borroka. Iruñean ghettoak zeuden, bakoitzak berea, eta Arabako Errioxan, herrian, zailago. Dani de Ayalak Arabako Errioxako herrien izaera bereizi du: Araba gehienez ez bezala, aski handiak dira bata bestearen beharra ez izateko, eta orduan kuadrillak herriko sortu eta harreman gutxi izaten da ondoko herrietakoekin, topaguneak izan badira ere: Guardia, Viana, Oion... Landaren aburuz, euskararen kontra-kontra-jarrerak leundu dira, baina hor dirau euskararekiko errezeloak, inoiz botikan edo Olentzerorekin edo udaletxean.

Azkaratek gertatu den aldaketaren erakusle Bendimia Eguna jarri du: Maialen Lujanbiok euskara hutsean bota zuen pregoia bertsoan. Ez zen egunik errazena: batzuk ardoa saltzera, beste batzuk mozkortzera, guraso batzuk beren umeak saskia eraman behar zutelako asalduraz...



Ezkerretik eskuinera atzean:
Dani de Ayala, Andoni Landa,
Esti Besa eta Idoia Marauri;
makurtuta Edurne Azkarate.

Jendeak oso ondo hartu zuen, andre zaharrek, Lujanbiorekin hunkiturik, opari pila bat egin zizkioten, Errepublika sasoian ikasitako euskarazko kantu bat kantatu eta, *“no he entendido nada, pero me he emocionado muchísimo!”* zioten. Eztabaidak ere badira De Ayalaren etxean: “Ondo, baina plazan ginen gehienok ez diogu ulertu!” edo “Ados, aita, berak bertso bat bota du, eta bertsoak euskaraz botatzen ditu, zenbat aldiz izan da pregoia erdara hutsean?”, eta jarraian, “Egia, bai! Bada, orduan urte pila bat beharko ditugu erdara hutsean izan direnak berdintzeko!”.

Azken koxka, Azkaratek jarri du: Arabako Errioxan beste leku batzuetan da goen antolatzeke eta borrokatzeke grina badago edo apalagoa da? Herriz herri eta belaunaldiz belaunaldi aldeak daude, baina Maraurik aipatu ditu azken urteeta-

ko Lurrikara jaialdia eta gaztetxea, edo fracking-aren kontrako borroka, ikasle eguna, Korrika alternatiboa. Festak antolatzeke elkartu ohi dira errazen. Landak eta Besak diote beraiek etorri zirenean baino saltsa gehiago dagoela egun. Denak bat datoz Arabako Errioxan herrien arteko distantziengatik-eta euren arteko sareak jostearen garrantzian.

EUSKARA IKASTEA, ATZO ETA GAUR

Azken bi hauek gogorarazi dute garai batean “gozatu” zela hitza, eta gaur egun “esfortzua” entzuten dela, lana, titulua... garaiak aldatu dira. Ikastolan euskara ezagutu dutenek ez dute hizkuntzara heldutan euren gogoz salto egin, ikastolan ikasi bai, baina erabili ez. Azkaratek dioen gisan, aurreko belaunaldiak euskara errebelldiarekin lotu zuen, baina

Bat datoz esatean falta dela euskaraz ikasi duen 40 urtetik beherako masa, irakaskuntzatik harago, euren lanbideetan euskaraz jardun daitezen planifikatzea

beraiei euskara diziplina eskatzen zien irakasle baten aldetik etorri zaie, fitxak egin bai, baina kultura gutxi, eta euskara bai, baina “zertarako” bat erantsi

behar zaio ikasketa horri. Gogoan ditu ikastolan erdaraz irakurritako liburuak, baina euskarazkoak? “Euskaraz motza, arina, erraza behar zuen, eta gero hain da motza, arina eta erraza, ez zaizu interesatzen; zergatik dakit *Cien cañones por banda* eta ez *Mendian gora haritza?*”, hausnartu du. Irakasle aldaketa asko ere izaten dira, batzuk oso denbora laburrez geratzen dira “erbestean”, De Ayalak badiu, hala ere, garunean geratutako euskara-momentu ederrak.

Maraurik matematikekin egin du alde-araketa: “Maiz matematikak ere zertarako diren galdetzen da eta erantzun behar zaio horri, euskara zeharka sartu behar da, emakumeen bisualizazioa zeharka sartzen saiatzen garen bezala, ez bakarrik euskara eta literatura liburu banarekin”. Landak 60 urteko euskaldun berri baten adibidea jarri du: “Nik euskara ikasi nuen irakaslea ederra zen, maiteminduginen euskararekin eta berarekin: musika, kultura... baina gaur egungo euskara irakasleak kabroi hutsak dira, ikasleak suspenditu egiten dituzte”. “Klik” horren bila jardun beharra dago: Historia, kultura, musika, bertsolaritza, unibertsitatea...

Maraurik “klik” egin zuen DBH2n bi lagunekin euskaraz egiteko, egun erdizka betetzen dute; gero unibertsitaterako Logroño beharrean Leioa aukeratu zuen, besteak beste, bigarrenaz “klik” egiteko. Azken “klika” irakurketarekin egin zuen: *Berria* hasieran oso nekeza egiten zitzaion, baina behin ohitura hartuta, ederki moldatu da. Azken aldian, literaturarekin egin du “klik” Arabako Errioxako irakurle taldean: “Irakurtzen ere ikasi behar da, hor beste ‘klik’ bat dago”. Landak, berriz: “Azpeitian ahozko erabilera %90 izango da, baina irakurtzen ez, e! Tabernan han dago *Berria*, ez dakit zenbatek ukituko duen, eta liburu bat euskaraz... bueeeno!”.

DINAMIKAK APURTZEKO ZAILTASUNA

Hizkuntza-ohiturak norbere herrian aldatzea ez da erraza aurrean daukazuna halakoren izeba-osaba, senar-emaztea

edo betiko ezaguna denean. Gainera, udal-langile bat, adibidez, euskaraz jakin ez eta euskaraz egiten badiozu, mindu liteke: “Berak badaki ez dakidala, zergatik etortzen zait euskaraz?”. Maraurik aipatu du gaztetxean saiatu zela harreman berriekin euskaraz egiten, hizkuntza-ohitura euskaraz hasteko. Baina, kasu: ondoko herrira joan, botikan zerbait erdaraz eskatu, botikariak bira eman, eta Euskaraldiko txapa ikustea Arabako Errioxan ere #gertatzenarida. Bat datoz esatean falta dela euskaraz ikasi duen 40 urtetik beherako masa, irakaskuntzatik harago, euren lanbideetan euskaraz jardun daitezen planifikatzea.

Andoni Landak eta Esti Besak gogorarazi dute garai batean “gozatu” zela hitza, eta gaur egun “esfortzua” entzuten dela, lana, titulua...
Garaiak aldatu dira

Apurka-apurka aldatu da egoera, baina Kuadrillan Euskara eta Berdintasun teknikariak jartzeko urte mordo bat joan eta gero, behin egonda horrekin arazoak konpondutzat ematen badira ere, “gainean egon behar da” beti kartelak ele biz ateratzeko edo kultura euskaraz programatzeko. Andoni Landaren arabera, “administrazioak inposatu ere, pixka bat inposatu beharko luke: ez erretzeko debekuak etorri zirenean, adibidez, ez zen sumatzen gizartea hori aldarrikatzen, gero debekatu, eta kitto, bada, ekarri monitoreak, musika taldeak, antzerkia euskaraz”.

Bestalde, gazte askok ikasteko kanpora jotzen dute, eta orduan, kuadrilla batzuk desegiten dira. Azkarateren ustetan,

euskaraz bizi nahi duenari, bere *mea culpa* eta guzti, beharbada, erakargarriagoa egiten zaio herritik ateratzea.

PERIFERIA

“Arabako Errioxakoa eta euskaraz!”, “Euskal Herrian gaude bai, hegoaldean, mugan, baina Euskal Herrian”, “bai, oiondar-oiondarra eta euskaraz, eta prentsa ere euskaraz irakurtzen dut”, “Bai, zu oiondarra, baina zure ama edo aita, edo aiton-amona?”, “Euskaldun berri zaharra naiz”...

Euskaldun askoren begietatik at sentitzen dira oraindik ere, batuaz egiteagatik gutxietsiak. Azkaratek: “Zuk egin zure euskalkiaren alde, oso ondo iruditzen zait, baina nire borroka ez da hori, eta gustatzen zait zu entzutea, zeren nik ez daukat euskalkiaren aingura, gus-tuko hitzak itsasten zaizkit, atxiki ahal dut iparraldeko bat edo edonongoa, nire borroka da euskara eklektikoa. Oso interesgarriak iruditzen zaizkit garatzen ari diren periferietako euskal nortasun batzuk: onartzen duzunean ezin zarela eredu den horretara iritsi, ez zarelako han jaio, ez zarelako euskaldun genetiko bat, gaintu behar duzu bigarren mailako euskaldun sentitzearena eta zure euskalduntasuna, nortasun hori garatu, gero gure euskalduntasuna eta berea nola elkartuko diren ikusteko dago”. De Ayalak: “Historia bakarraren arriskua hor dago oraindik: euskaldunak izan dira balea harrapatzaileak edo baserritarrak, txistua edo trikitia jotzen dutenak, bada, orduan, agian, ni ez naiz euskalduna sentituko, mahastietan lan egiten duena eta gaita jotzen duena ere bada euskalduna”. Landak: “Ttiki-ttaka elkartean ekimen guztiak gure filtrotik pasatu izan ditugu beti”. Besak: “Euskal munduko hedabideek gure gaineko albisteak gutxitan ematen dituzte, *El Correo*-n askoz gehiagotan, baina txarrerako”. Arabako Alea-ri ere begi batekin keinua eta beste begiarekin bekaina altxatuta begiratu diote.

Azkenik, eskaera bat euskal munduari: “Mesedez, hona etortzen zaretenean ez egin erdaraz”. ●

BABESLETA:

hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera...
arnasa gara, euskaraz gara!

UEMA
UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Kolera izurria mapekin gelditu zuen aitzindaria




**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Londres, 1848. Kolera izurria zabaldu zen hirian, eta medikuak bi bandotan zatituta zeuden gaixotasun horren eta beste batzuen jatorria zela eta. Mediku gehienak teoria miasmatisma alderatzen zuten oraindik. Antzinarotik zetorren teoria horren arabera, miasmek (*miasma* grezieraz kutsadura) eragiten zituzten zenbait gaixotasun, hau da, lur eta ur zikinen jario kirasdunek. Beste batzuk, ordea, Louis Pasteurren teoria mikrobiano berriaren alde egiten hasi ziren. Azken horien artean zen John Snow (1813-1858). Nekazari familia baten baitan jaioa, gaztetan Killingswortheko ikatz meatzarien artean zabaldu zen kolera izurri latzaren lekuko izan zen, eta horrek bultzatu zuen gaixotasunaren aurka borrokatzea eta, horretarako, medikuntza ikastera.

1848ko kolera agerraldi hartan metodo berritzailea erabili zuen Snowek. Ez zen etxez etxe gaixoak bisitatzen ibili; kasuak mapa batean kokatu zituen eta ondorioztatu zuen ur-ponpa publiko nahiz pribatuaren inguruan pilatzen zirela gaixo eta hildako gehienak. Lehen aldian zen epidemia bat aztertzeako metodo geografikoa erabiltzen zela. Hurrengo urtean London Epidemiological Society aitzindaria fundatu zuen beste mediku batzuekin batera.

1854an, beste kolera agerraldi batekin ikerketarekin jarraitzeko aukera eman zion. Soho auzoan, Broad Street ingu-



MICRONAUTES

John Snow epidemiologo aitzindaria, atzean Londresko Soho auzoko mapa duela. XIX. mendearen erdialdean, mapak erabiliz kolera izurriari aurre egitea lortu zuen.

ruko kilometro erdi eskaseko diamentroan, 700dik gora hildako eragin zituen aste bakarrean. Sohoko mapa bat hartu eta, auzoko parrokoaren laguntzaz nahiz Middlesex ospitaleko artxiboa begiratu, irailaren izandako hildako guztiak kokatu zituen bertan. Mapako puntutxo guztien epizentroa eta, beraz, agerraldiaren jatorria Broad Streeteko ponpa publikoa zela ikusi zuen. Agintariek ponpa itxi zezaten lortu zuen eta izurria berehala gelditu zen.

Handik urte batzuetara Londresko Osasun Kontseiluko kideek erabaki zuten berriro ere teoria miasmatisma sinesten zutela, ez zeudelako Sohoko ur-hornikuntza bermatzeko inbertsioak egiteko prest. Broad Streeteko ponpa berriro erabilgarri jarri zuten, eta kolera sekula baino bortitzago itzuli zen Sohora. Ordurako John Snow hilda egon arren, kolera eragin zituen ehunka eta ehunka hildakoek arrazoia eman zioten. ●

Erdi Aroko eta euskarazko rolak

Eneko Azedok *Adur* izeneko rol jokoak sortu du. Oso gutxi dira rol jokoetan euskaraz aritzeko aukerak eta, gehienetan, beste hizkuntzetan sortutako jokoak itzuli edo moldatzen dira horretarako. *Adur* euskaraz sortu da eta, gainera, euskal edukiak ditu. Jokoa Erdi Aroan girotuta dago eta jokalariek jokatzen

dituzten rolak euskal mitologiako pertsonaiak dira: lamiak, jentilak, Mari... Eta jokalariei ematen zaizkien egoerek gertaera historiko nahiz mitologikoak dituzte oinarri. Rol jokoak helduentzat izan ohi diren arren, Azedok arau errazak jartzea erabaki du, haur eta gazteek ere jokatzea ahal dezaten. ●



ENEKO AZEDO

Lanean ere bada bizitza ederrik

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Bira produkzioko kideak “bizigarritasunaz” eta “bizitza zentroan jartzeaz” mintzo dira, baina asebetetzea lan barruan bilatzen dute, ez lanetik kanpoko zereginetan. Lana eta *hobby* uztartzea da horretarako gakoa: “Gustatzen zaiguna egiten dugu, eta hori jada zortea da”, azaldu digute. Soldata bermatzen dieten enkarguzko lanez gain, beraien lan denboraren zati bat eskaintzen diote proiektu propioak egiteari, “kontatu nahi ditugun istorioak kontatzeko ametsak betetzeari”. Eta zer arraio, enkarguzko lanekin ere gozatzen dutela diote, haien bezero gehienak eraldaketa soziala bultzatzen dutenak baitira: “Ez dira enkargu hutsak, elkarrekin egiten dugun bidea baizik”.

“Guk enkarguzko lanak egiten ditugu, baina saiatzen gara gure denboraren zati bat eskaintzen gugandik ateratzen diren ikus-entzunezko proiektuei. Denbora proiektu propioei eskaintzeak egiten du bizigarri gure lana. Askotan, bizigarritasuna lanetik kanpo kokatzen du jendeak, baina guretzat bizigarritasuna gustatzen zaigun hori egitea da”. Gizartean lana eta bizitza bereizteko dagoen joera, hau da, lanetik irtendakoa bizitza hasten denaren ideia ez dute partekatzen. Izan ere, Birakoek gozatzen dute beren lanean.

Kontzienteki eskaintzen diote lan denboraren zati bat beraingandik sortutako proiektuak garatzeari: hileroko lanetan %10a baino gehixeago. Horren fruitu da, adibidez, iaz aurkeztu zuten *Sans Nom Sarea* dokumentala, II. Mundu Gerrako espioitza sareari buruzkoa: “Memoria historikoari gure alea jartzeko modua izan zen”. Birak egiten dituen proiektu propioek badute lotzen dituen hari bat: euskal iruditegia elikatzea. Haien hitzetan, “hori ere bada herrigintza. Kultura arlotik gure aletxoak jartzeko modua da, etengabe produktu kultural atzerritarrekin bonbardatzen baikaituzte. Eta guk ere sortu behar ditugu gure istorio propioak. Iruditegi horren barruan, memoriari garrantzia ematen diogu, agian inkontzienteki baina behin eta berriz ateratzen zaigun sator bat da,



beraz, interesatzen zaiguna, beste hainbat gairekin batera”.

Beraien proiektuak egiteko denbora “garaika” ateratzen dute, ez egunero denbora kopuru bera eskainita: “Enkarguzko lanek ematen digute jaten eta garai batzuetan enkarguzko lan asko izaten ditugu eta horiei ematen diegu lehentasuna, eta beste garai batzuetan lasaiago ibiltzen gara eta orduan garatzen ditugu gure proiektuak”.

Onartzen dute proiektu propioetan barneratzeak badituela bere kontraesanak: “Gustuko horretan ari zarenean behar baino denbora gehiago eskaintzen zaio lanari eta hor hasten da bizigarritasuna galtzen. Orduan sortzen dira tentsioak eta desorekak. Baina beste jende bat lanetik ateratzean korrika egitera edo bizikletan ibiltzera joango da: bada gure zaletasuna bideoak egitea da. Kontraesan guztien gainetik, zoriontsu gara”.

ENKARGUAK ERE IZAN DAITEZKE GOZAGARRI

“Bideogintza lanak enkarguzkoak dira, baina asko egiten dugu lan eraldaketa klabea ari diren eragile horientzat. Eta horrek ere asetzen gaitu, zeren ikusten da bideoak tresna izan daitezkeela eta gu bidelagun izan gaitzkeela eraldaketa klabea lanean ari diren eragileentzat. Bidea haiek in egiten dugu eta oso asegarria da”.

SAREAK JOSI ETA JOSI

Ekintzailatza soziala sustatzen duen KoopFabrika programan sortu zen Bira eta hiru urte egin zituzten Iturrola Hernaniko elkarlan sorgunean: “Agian horregatik guztiagatik, guretzako garrantzia handia dauka sarea eraikitzeak eta natural egiten dugu, baita gure konpetentzia izango diren ikus-entzunezko beste kooperatiba batzuekin ere”. ●

bira

BIRA PRODUKZIOAK
biraprodukzioak.eus

Zer egiten du: Ikus-entzunezko komunikazioa, bideogintza eta gidoigintza lanak, baita publizitatea, ekitaldien jarraipenak edota bideoklipak ere.

Langile edo bazkideak: 4.

Egoitza: Andoainen.

Harremanetarako:
info@biraprodukzioak.eus

BERANDUEGI ATALAK 250. ORRIA BETE DU ASTEKARIAN

Inoiz ez da beranduegi umorerako

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Herri hau sortzen segi dezagun euskaratik (e)ta euskaraz". Esaldi horrekin amaitu zuen garaipen bertsoa Maialen Lujanbiok 2009ko Bertso Txapelketa Nagusian. Hala ulertzen da, nola-bait, umorea ARGIAN; herri bat, kultura bat, erreferentzia batzuk sortzeko tresna, euskaratik eta euskaraz. *Beranduegi* da horretarako espazioa komunikabide honetan eta 250. orrialdea os(p)atuko du datorren astekearian.

Pantailarako prestatutako umorearekin hasi ziren 2011n. Unai Brea eta Gorka Bereziartua aurkezle. Ehun saio egitera heldu ziren, baina horrelako eduki bat prestatzeak dakarren lan-kargak akituta utzi zioten 2013an emankizuna egiteari. Umorea paperera ekartzeko saltoa eman zuten 2015eko irailean, euskarri berri-egokituta, baina estilo bertsuan. Bultzaka zetozen sare sozialetan meme-ak, argazki muntaiak... eta paperan orrialde erakargarri bat egiteko aukera ikusi zuten. Eta azkenik, 2020an, pandemia betean, podcasten mundura eraman zuten *Beranduegi*.

Euskarazko umoreak ez du espazio handiegirik okupatzen hedabideetan eta betetzen duen tarte txiki horren zati aski handi bat hartzen du *Ocho Apellidos Vascos* edo *Vaya Semanita* estiloko algarra tontoak. Beste molde bateko umorea darabil *Beranduegi*.



Politikoa, esango diote batzuek akaso. Politikoa umore guztiak direla esango nuke nik. Mamitsuagoa deitzea gehiago gustatzen zait. Edo mamia duenaz umorea egiten duena. Zuzeneko kolpea izaten da askotan, hitz gutxitan K.O., eta ez gaude oso ohituta horretara. Ez daukagu bereziki barneratua hedabideetan umore hori erabiltzeko kultura. Eta ez da erraza kultura hori barneratzea, beste herrialde askotan punta puntako politikariek parodia bat egitea oso ohikoa den bitartean, bazter hauetan arriskuan jar baitezakegu gure askatasuna ere.

Eta ez, ez didate balio "euskaraz umorea egitea zaila da" edo "euskaldunak zozoagoak gara alde horretatik" bezalako esaldiek. Barkatu, baina ez dut uste euskaldunok barre gutxiago egiten dugunik. Pentsatu behar duguna da zertaz trufatu nahi dugun. Tele 5ren ereduak esan behar ote digun barre ere zeren inguruan egin edo guk sortu nahi ditugun beste erreferentzia batzuk eta beste kultura bat.

Euskarazko umore kritiko eta *kaxondoaren* aldeko apustua egina du *Beranduegi*. ●

AGENDA

Olatukoopek

MUNDU BERRI BAT EUSKAL HERRITIK

zikloa antolatu du maiatzaren 26rako. Hitzaldi hauek internetez ikusentzun ahal izango dira, Olatukooopen Youtube kanalean, edo bestela hemen sartuta:

labur.eus/munduberribat

Hona hemen egitaraua:

10:00-10:15

ONGI-ETORRIA

Beñat Irasuegi.

10:15-11:45

BIZIGAIK. BALIABIDEAK SORTZEN DITUGU, BALIABIDEAK SORTZEN GAITUZTE

Mirene Begiristain, Oihana Lorea eta Gorka Julio.

12:00-13:30

BIZIKIDETZAK. HARREMANAK SORTZEN DITUGU, HARREMANAK SORTZEN GAITUZTE

Enara Iruretagoienea, Marina Sagastizabal eta Aritz Rodriguez.

15:30-17:00

BIZILEKUAK. ESPAZIOAK SORTZEN DITUGU, ESPAZIOEK SORTZEN GAITUZTE

Beñat Etxebeste, Iñaki Etxebeste eta Ana Almandoz.



MIHILUAREN JAKINTZA GALTZERDIAN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Laguna ez den lagun batek jarri du horietako sare batean sasoi hone-tako bere amonaren esaera bat: “Zainzuriak biltzera bazoaz mihilu arbatxo batzuk sartu galtzerdietan, orain akainak igotzen dira-eta”. Nik zuzenean galdetu diot ea nongotarra zen amona, eta erantzuna Malagako Axarkiako, Espainian.

Fenologiaren zientziak asko erakusten du. Landareen bizimodua noiz eta nola garatzen den esaten digu: begia noiz puze den, lorea noiz irekitzen den, hostoak noiz zabaltzen diren eta abar. Axarkian, Zarrakaztelun eta gure etxean ez dira zainzuriak (*Asparagus officinalis*) batera etorriko, seguru, baina zainzuriak mugitzen direnean, batean bezelaxe besteetan, akainak ere mugituko dira. Hortxe kulturen arteko trukearen elkar janztea, elkar elikatzea.

Mihilua (*Foeniculum vulgare*) ere badugu geurean. Izen asko du: anis-belar, milu-belar, mirilu-belar, mellu, miro, mieloi, mihulu, pukullu, erbasanta... Baten batek berbera izena ere jasoa du, berez, ia erabat, *Verbena officinalis* sendabelarrarentzako erabiltzen dena. Anado ere esaten diote, baita ezamilua ere, baina izen horiek gehienbat, aneta (*Anethum graveolens*) izendatzeko erabiliak dira. Xarpota ere esaten diote,



MIHILUA (*FOENICULUM VULGARE*).

Lapurdi aldean, baina ezkaia (*Thymus vulgaris*) izendatzeko erabiltzen da batez ere.

Anisaren (*Pimpinella anisum*, zenbait anis-belarra honi esaten diote) familiakoa da, eta harekin lotzen dugun usain ederra du mihiluak. Osasunerako bere onura onena karminatiboa izatea da, hau da, digestio-aparatuan gasen sorrera murrizten laguntzen du, haizeak eta kolikoak gutxituz. Europako lehen unibertsitatetzat jotzen den Salernoko Medikuntza Eskolako (*Schola Medica Sa-*

lernitana) esaera klasiko batek hala dio: “*Semen foeniculi pellit spiracula culi*” (mihiluaren haziak ipurtzuloa irekitzea errazten du). Horretarako mihilu infusioa egin behar da; katilukada ur berotzen jarri eta irakiten hastean, aurrez motrailu edo zaparri batean xehatutako fruta koilaratxo bat eransten zaio. Katilu bana hartu bazkaldu eta afaldu ondoren. Libratzen laguntzen badu ere, beherako kirastun haizetsuak tratatzeko ere ona da.

Katilukadaren erremedio bera erabiltzen da bularreko esnearen emana ugartitzeko. Sona handia du, baita ere, begien zaintzan, hanturak baretzeko batez ere. Espainiarrek mundu guztira eraman zuten, eta, agi danean, oraindik ere Argentinako panpan amek mihilua ahoan ibili eta hatsa bere umeen begietara botatzen dute.

Sugeek ere mihilua maite dute, izan ere azala berriro behar dutenean bera ferekatuz egiten omen dute.

Hauek eta landareen sendatzeko erabilera ederrak azaltzen ditu Pio Font i Quer botanikari, farmazialari eta kimikari katalan handiak 1962ko *Plantas medicinales. El Dioscorides renovado* liburu erraldoian. Mihiluarenean sugeak aipatzen ditu, baina akainik eta galtzerdirik ez. ●

Jakoba Errekondo^{rekin}

hitzaldia, kontsultategia, bisita gidatua edo tailerra antolatu

Baratzean, eskolan eta aretoan, zale eta profesionalekin, ikasle eta irakasleekin, baratzeaz, basoaz, fruitu arboletaz, lore baratzeaz... Egin proposamena eta zure neurria egokituko dugu!

bizibaratzea@bizibaratzea.eus / 943 37 15 45



ARGIA

BIZI BARATZEA

FRUTA-ARBOLEN BARATZE KOLEKTIBOA ARROSAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Bizi! mugimenduak ingurumenaren alde proposatutako egitasmoen artean, Arrosako zenbait hautetsik, tartean Argitxu Beyriek, herriko lurretan fruta-arbolen baratze kolektiboa abiatzeko ideia izan zuten 2015ean. “Gabriel Durruti irakaslearekin harremanetan jarri eta Arrosara ekarrarazi genuen orduan, hemengo jendeak etxaldeetan eta nekazaritzan baliatzen zituen teknikak biltzen laguntzeko”, azaldu du proiektuaren jatorria Mirentxu Biscaichypik kideak. Sei urteotako ibilbidean 60 bat fruta-arbola landatu dituzte herriko lau lursailetan.

Herrian lehendik zeuden arbola espezieak eta horien inguruko jakitatea jasotzea izan zuten hastapeneko lana. “Teknikak eta txertogaiak biltzeko eta fruta-arbolen inguruan zegoen jakitatea transmititzeko ekarrarazi genuen Durruti”, dio. Lanketa horretan, Arrosan barna etxetzeko bira egin zuten etxaldeetan zein arbola zeuden ikusteko, mende eta hamarkadetan zehar bertan egon direnak. “Hor ikusi genuen intxaurren anitz bazirela, gaztainondo basatiak ere bai oihanean modu naturalean ateratakoak...”. Jardun horretan lagundu zien Durruti irakaslea Sagartzea elkarteak kide da eta badu esperientzia: etxaldee-



tan bertako sagar barietateak biltzen egiten dute lan eta sagarrondoaren kontserbatorioa sortzen ari dira orain.

Hain zuzen, beste zuhaitz askoren artean, galtzeko arriskuan ziren 60 urte inguruko sagarrondo zaharrak topatu zituzten Arrosan. Proiektuko kideek txertogaiak bertatik hartuz eta berriz txertatuz beste bizitzak eman diete zuhaitzei. “Txertatzeko teknikak ikastea eta arbolen landatzea zen asmoa, baina baita harreman sozialaren sustatzea eta ondare horren inguruko lanketa egitea ere”, gehitu du Biscaichypik.

HEZETASUNA MANTENTZEKO, ARTEILEAREKIN PROBAK

Maiatzaren 8an, landatutako arbolak ba-

besteko ekimen berezia antolatatu zuten baratze kolektiboan: arbolen oinak artilez inguratuzko auzolana. “Hasiera batean, hezetasuna atxikitzeko koko intxaurrez egindako disko bolak erosi genituen, zuhaitzen azalean jartzen direnak”. Proiektuko kideak, baina, pentsatzen jarri ziren hurbileko materialen batekin gauza bera lortu ote zezaketen. “Laborarien etxera joan ginen artile bila eta arbolen inguruan meta handi moduko batzuk jarri genituen horiek babesteko eta hezetasuna mantentzeko”. Lastoarekin

egin izan dira antzeko probak lehena-gotik, baina artilearena entsegu bat dela dio Biscaichypik. Momentuz, badirudi esperientzia emaitza onak ematen ari zaiela.

Zuhaitzak herriko lau lursailetan daukete banatuak, edonoren eskura. “Jendeak hartzen ahal du sagar bat nahi badu! Gune kolektiboa da, eta aurrera begira nahi genuke eskolako haurrek-eta fruitu ttipiei buruz lan bat aurrera eramatea hemen, haiek ere honen parte izateko”. Horixe da arrosarrak azpimarratu duena, denei irekita dagoela eta ikasi bitartean sozializatzeko eta herritarren arteko harremanak bultzatzeko aukera ematen duela. ●



25 urte elikagai
ekologikoak ziurtatzen
Eskerrik asko!

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

CPAEN NNPEK
CONSEJO REGULADOR DE PRODUCCIÓN, COMERCIALIZACIÓN Y CALIDAD DE PRODUCTOS AGROPECUARIOS, PECUARIOS Y DE CACAO

EUROPEAN UNION
EUROPEAN COMMISSION

25 AÑOS | URTE
CPAEN NNPEK
CONSEJO REGULADOR DE PRODUCCIÓN, COMERCIALIZACIÓN Y CALIDAD DE PRODUCTOS AGROPECUARIOS, PECUARIOS Y DE CACAO

Ospatu gurekin
urteurrena!

Irailak 24-25-26
Zentzumenen partea, Noain

“ ”

Soinuz inguratuta nengoen, eta ezinezkoa zen abestirik ez egitea

Angel Katarain

Soinu teknikari ezaguna da Angel Katarain, baina inork gutxik zekien IZ estudiotik denek alde egiten zutenean han gelditzen zela bera, parean aurkitutako instrumentuekin esperimentatzen. Coldwave edo post-punk giroak gogorarazten dituzten 42 abesti grabatu zituen 1983 eta 1993 bitartean –pieza bakanak eta aski bitxiak orduan parajeotan egiten zenerako–. Promozioak betidanik gogaitu izan duenez, itzalean eduki ditu urte askoan, lagunei eta

gertukoei bakarrik erakutsiz aurrena, bandcamp helbide batean zintzilikatuz gero. Orain, abesti horien hautaketa bilduma bat berrargitaratu du Hegoa Diskak zigilu berriak, eta horren aitzakian elkartu gara Ordiziako plazan. Musikari buruzko hitz-aspertuak laster eramán gaitu garaiko giro politikora, eta hala atera dira hizpidera etengabeko atxilotetak, kobazuloetako ihesaldiak, bere arreba Yoyesen hilketak, eta beste hainbat kontu.

Ez zaizkio hedabideak gehiegi gustatzen Angel Katarain Gonzalezi (Ordizia, 1961). “Arrebaren kontuekin eta, prentsa sentsazionalista sarri ibili izan da inguruotan bueltaka, eta azkenean bukatzen duzu merezi ez duena gorrotatzen”. Elkarrizketa proposamena egindakoan, halere, ez du ezetzik esan: “Ez dut inoiz baztertzen hizketarako gogoak duenarekin kafe bat hartzea. Grabagailuarekin Ordiziako plazara etortzen bazara, hitz egingo dugu, eta merezi duen zerbait ateratzen bada, argitaratu dezakezu”. Tramankulu artean hazitakoa da Katarain: 12 urte zituenerako bozgorailuak erakitzeko gai zen aitona arotzaren laguntzaz. Gero, Fernando Unsainen eskutik IZ estudioan hasi zen soinu teknikari gisa. M-ak-en sorreran parte hartu zuen Kaki Arkarazo lagun minarekin –gerora Matxinadak proiektuan elkartuko ziren berriro–, baina pixkanaka urrundu zen, taldeak punk ingelesaren oihartzunak barneratu ahala. 1995ean, berriz, Azkarate estudioa sortu zuen Jonan Ordorikarekin eta Amaia Apaolazarekin batera. Orain ziklo hori ixten ari da: estudioko trasteak atera ditu, eta lararen zaintza lanetan dabil, “amatasunari emana”. Ez du aspertzeko betarik, halere.



1983 eta 1993 bitartean egindako kantak biltzen ditu diskoak. Zer iruditu zaizu Mikel Acostak egin duen hautaketa?

Harritu ninduen proposamenak. Estilo honetako musika egiteak orain arte ezer gutxirako balio izan dit –dirua galtzeko eta diskoz jositako paketeak etxean pilatzeko, asko jota–. Baina ez dago erraza jende motibatua topatzea, eta ez nuen nik kikilduko. Diskoaren bi bertsio egin zituen, eta biak gustatu zitzaizkidan. Lehendabizikoa luze samarra atera zitzaion, ez zen biniloa kabitzen. Pixka bat moztuta, bederatzi kanta horiek gelditu ziren. 1983tik 1986ra bitartean dena dago mikro bidez zinta magnetikoan grabatuta, laguntza tekniko handirik gabe, behin eta berriro joz. Elektornikak pisu txikia du hor –erritmo kaxa zaharrak eta garaiko teklatuak bakarrik erabili nituen–. Ondorengoak, aldiz, digitalean daude grabatuta, eta elektronikak pisua hartzen du pixkanaka. Masterizatzerakoan kanta zaharren eta ez hain zaharren arteko lotura landu behar izan dugu batez ere. Edonola ere, zaharrenei eman die lehentasuna Mikelek.

“ ”

Norbaitekin maiteminduta zaudenean bezala da: ez zara lasaitzen esaten diozun arte. Gaua noiz iritsiko zain egoten nintzen, abestiek alde egingo ote zidaten beldur

Irudipena daukat Jon Zabaletaren azalak ondo biltzen duela zure musika mundua.

Bikain ulertu du. Mikelek zerbait kontatuko ziola pentsatzen dut. Bere kapsulan sartuta ageri den tipo hori... halaxe zen. Gure burbuilan bizi ginen, ahal bazen ez gintzatela ikusi, eta kainoiak kanporantz apuntatuz beti [barrez]. Aitonak esaldi bitxiak bota ohi zituen, eta behin esan zidan: “Angel, munduaren erdia kanpora begira bizi da, eta beste erdia barrura begira”. Nire musika barrura begirakoa

zen. Ez zitzaidan gustatzen deskontrola eta iskanbila, eta horrekin lotzen nituen rocka, punka, eta folk tradizionala. Kanpora begirako mezuak ziren haiek. IZ-n lanean hasi nintzenean grabatu behar izaten nituen talde ia guztiak –estilo askotarikoak izan arren– kanporanzkoak ziren, eta horrek zerikusi zuzena izaten du argiratzearekin, saltzearekin eta kontu horiekin. Nik ez dut inoiz interesik eduki nire kapsulatik kanpora ailegatzeko. Egiten gozatzen nuen, baina promozioan pentsatzea oso gogorra zitzaidan. Ondo iruditzen zait jendeak egitea, baina nik ez dut inoiz gogorik izan.

Garai hartako hemengo musika panoraman ez zegoen zuk egiten zenuenaren antzeko ezer. Zerk eragiten zizun?

Ezer gutxik, edo ez dakit zerk. Batzuetan, kantak egiten nituen eta gero Kaki Arkarazok topatzen zizkidan erreferentziak. Hari asko interesatzen zitzaion kanpoko musika. Esaten zidan: “Zuk egiten duzunaren antzeko talde bat dago”, eta The Residentsen diskoa ekartzen zidan. Edo nire kantu bat entzutean esaten zidan: Brian Enoren antza du, edo Cocteau Twinsena, edo Laurie Andersone-na. Eta ohartzen nintzen hala zela, baina ez nituen ordura arte entzun. Inork ez du ezer asmatzen, munduan beti dago norbait zure oso antzeko zerbait egin duena lehenago. Disko bakarra dago auskalo nola nire etxera iritsi zena eta etengabe jartzen nuena: Klaus Schulzen *Timewind*. Ez dakit gogoak nola funtzionatzen duen, entzuten duguna islatzen ote dugun kanpora, baina nire estiloa ez da izan “honek zer egiten duen erreparatuko dut, ea bere oihartzunik itsasten zaidan”. Ez dut halako interesik eta beharrik eduki. Nik abestia aurkitu egiten nuen. Goizetan, estudioan besteen lanak grabatzen ari nintzela, jada buruan bueltaka hasten zitzaidan gauean grabatuko nuen abestia.

Kolpetik etortzen zitzaizkizun kantak, orduan.

Melodiak burura etortzen zitzaizkidan, eta, grabagailurik eskura ez baneukan, desagertu egiten ziren. Bob Dylanek esaten zuen: “Musika hor dago, esperientzia propioa dauka, eta norbaitek bera ikusi eta erregistratzea besterik ez du nahi”. Uste dut arrazoi duela. Abestia bat-batean agertzen da. Puzzle baten zatiak airean harrapatu ahala hura osatzea bezala da, inguratzen zaitu eta zuk graba-

gailura bideratzen duzu. Nik bakarrik lortzen ez banuen, laguntzen zidan Kakk edo Amaia Apaolazak –gerora nire konplizea izan zena denean–. Melodiak kantatzen nizkien, eta haiek gitarrarekin edo teklatuarekin ateratzen zuten abestia. Eta estudioko beste musikariek ere parte hartzeko arriskua izaten zuten berandu arte geldituz gero [barrez]. Baina eguna iristen da musikak inguratzen ez zaituena, eta orduan ez daukazu ezer bideratzeko –eta saiatzeko bazara lardaskeria besterik ez duzu egingo–. Garai hartan, soinu inguratuta nengonez, ezinezkoa zen abestiak ez egitea. Norbaitekin maiteminduta zaudenean bezala da: ez zara lasaitzen esaten diozun arte. Gaua noiz iritsiko zain egoten nintzen, abestiek alde egingo ote zidaten beldur. Estudioan bakarrik gelditzen nintzenean, inguruko instrumentuei begiratu, batzuk hartu eta hasten nintzen. Abestia isuri arte, ez nintzen gelditzen. Batzuetan gau osoa igarotzen nuen kanta bat egiten, eta biharamunean, lanaldia amaitu orduko nahasten nuen. Niretzat garrantzitsuena zen abestia gainetik kentzea. Edo isurtzen dut, edo bihar beste zerbait izango da. Ezin nuen onartu kantak ihes egiterik.

Arrikrutzko kobazuloetan grabatutako Sala 5 eta Sala 3 abestiak beste era batera sortuta daude, ordea. Bai, kobetara zer suma joaten ginen. Bideo kamera eramaten nuen, eta harekin grabatzen nuen audioa ere. Haitzuloko estalaktikak joz txalaparta modukoa egiten genuen. Hura bestelako soinu mundua zen. Arrikrutzez gain, Ataungo Troskaeta koba ere nire inguru propioa zen. Han gordetzen nituen etorkizuneko espedizioetako erreserbak. Askotan bakarrik joaten nintzen, aste osoa igarotzen nuen ingurua linternekin eta kandlekin argitu eta argazkiak ateratzen, estalagmiten gaineko tantak entzunez, erlojurik gabe, latetatik janez, eguna ala gaua zen jakin gabe. Jende asko gonbidatu nuen sentsazio haiek proba zitzaten. Hura nire etxea zen. Ordiziako etxean gurasoak eta bederatzi anai-arrebak zebiltzan aurrera eta atzera, halako familia handi batek ematen duen eromen eta poz guztia zegoen han, baina baita gauez polizia ere, eta manifestazioak, eta greba orokorrak, eta atxiloketak, eta etengabeko miaketak... Batzuetan estudioa berandu iristen nintzen, Donostian zehar nenbilelako polizia furgoiaren batean sartuta.



Familia kontuengatik?

Noski. Yoyes ordurako jopuntuan zeukaten, eta iheslarien lagunak eta senitar-tekoak fitxatuta geunden. Hartzen nuen trena Madrilgo erakusketa bat ikusteko, eta trenean bertan atxilotzen ninduten; edo bestela, iristean. Eta bestela kontroletan, edo estudiora bidean, edo handik ateratzean. Kontzertuetan ere bai. Etengabe. Ostiak ematen zizkidaten alde guztietatik eta kolore guztietakoek: aurrena grisek, gero marroiek eta baita berdeek ere. Bizi zarenean kaleei iskin egiten, kikilduta, une batetik aurrera altzari ibiltaria bihurtzen zara, zure baitatik bakantzen zaituen oskol modukoa sortzen zaizu. Ni eskafandra moduko batean sartzen nintzen, eta handik ikusten nuen mundua. Nire koadrilakoak eta lagunak euskal borrokaren eta haren musikaren oso gertukoak ziren –erdiak preso edo ihesean amaitu zuten–. Baina banuen nire lagun talde hippya ere, Syd Barret, Frank Zappa edota David Bowieren zale sutsuak ziren estralurtar ilunak. Musikazaleak izanagatik, ez zeuden sor-kuntza zirkuluetan, eta drogen menpe

edo HIESak harrapatuta amaitu zuten askok. Nik nahasi samar neuzkan poliziak, melena luzea eta ile beltz zaharrez egindako berokia baineramatzan. Ez zekiten zer nintzen, ETAKoa edo jonkia. Hirurogei urterekin jarraitzen dut burbuila horretan bizitzen. Agian orain finagoa da, baina halere jarraitzen dut mundua ikusten beste toki batetik bezala. Eskafandra garai hartan jarri nuen, ordea –autodefentsa bezala, noski–. Zerbait behar nuen, zartada bat ematen zidatenean burura indar gutxiagorekin iristeko, eta kalera ateratzeko beldurrak uxatzeko.

Eta, hala eta guztiz ere, garai hartako oroitzapen onak dituzu.

Beldurrak airean bizi ginen, baina zoriontsuak ginen aldi berean. Pizgarri positibo asko zeuden: askatasuna, giro existentzial hippya, mendiak... eztaba-datzen genuen ea taoistak edo budistak ziren hobeak, edo Carlos Castanedaren irakaspenei buruz, edo droga kontuez –perretxiko hau hartuz gero garunaren alderdi honetara joango zaizu–, edo

meskalinaz, azidoez, eta gure buruaren ezagutza sakontzen lagundu zezakeen edozere. Baina nik ez nuen kanuto bat ere erretzen, ikusten nuelako nola eragiten zien besteei. Haien bidaiarekin drogatzen nintzen. Eta mendira eramaten nituen, haitzuloetara, gogoak ihes egiteko eta amesteko tokietara. Handik begiratuta, mundu errealek ematen zuen komiki bat, graziarik gabekoa eta simaurrez josia. Egun batzuen buruan herrian lur hartzen genuen, eta han dena zen mobilizazioa. Ni norbanakoen independentziaren aldekoa nintzen, baina ez zidan loa kentzen nazioen independentziak. Zer ziren nazioak? Mundu horretatik urrun sentitzen nintzen. Munduko muga guztiak gerrekin eta odolarekin eginda daude, eta, zer eta hemen gehiago jarri nahi dituzue? Oso ondo iruditzen zitzaidan atzetik neuzkan polizia haiek uxatzea, baina ez nentorren oso bat euskal ezkerren dinamikekin. Kontra ere ez nengoen, eta lagundu behar bazen laguntzen nuen, nahiz eta funtsean askorik axola ez –ekitaldietara gonbidatzen nindutenean esaten nien ni libretik nin-



doala-. Elkar gorrotatzen zuen jendearen laguna nintzen, baina ni ondo sentitzen nintzen gogoa irekita sumatzen nion edozeinekin. Nire burbuilan zerbaitek esaten zidan: hemen gera zintezke, hemen ez. Beti gerturatu izan naiz nirekin zerbaitetan bat egin dutenengana. Lagunak ez dira hautatzen beraien ideia edo pentsamenduengatik, oso ondo zer den ez dakigun bibrazio moduko batengatik baizik. Horrekin sin-tonizatzen dugu.

Ziur asko alderantziz funtzionatzen du gehiago: amaitzen duzula pentsatzen duzuna pentsatzen inguratzen zaituen jendearengatik...

Bai, alderantziz da. Baina gaztetan iruditzen zaizu lagunekin zaudela zu bezala pentsatzen dutelako. Ni azkar ohartu nintzen ezetz, egunero estudioan egoten nintzelako elkarren antipodetan zegoen jendearekin, izan politikoki izan musikalki. Umetatik, etxetik ateratzerako ikasi behar izan nuen ideia kontrajarriekin bizitzen. Azkenetako, ohartzen zara badaudela lotura batzuk ideiekin zerikusirik ez daukatenak, indartsuagoak direnak, eta luzera eraginkorragoak ere bai, pertsonak aldarazten dituztelako. Hor badago zerbait zerikusia duena irekitasunarekin. Batzuk irekiagoak dira, besteak itxiagoak. Eta beste batzuei sumatzen zaie irekiko direla, une batez itxita egon daitezkeen arren. Sentitu egiten duzu, pertsona hori denborarekin ireki egingo da, eta jakingo du bere munduak kontrastatzen. Eta, azkenik, badira sekula

irekiko ez direla ikusten duzun beste batzuk, astazakilak, batzuk jatorrak eta asmo onekoak, beste batzuk urruti eduki beharrekoak, ohartzerako azken energia tanta zurrupatuko dizutenak. Baina buru irekikoak iruditzen zaizkizun haiek berdin du une jakin batean zer pentsamendu zehatz duten, zure laguntzarik gabe ere irekitzen jarraituko dutelako. Eta desberdintasun horretatik aberastu zaitzakete, gainera.

“ ”
Segurtasunaren
mundura gerturatzen
zarenean eta
egunerokoak jaten
zaituenean, sormenak
begiratzen zaitu,
esanez: ‘Banoa zu baino
ezegonkorrago dagoen
norbaiten bila’

Yoyes hil zuten egunean estudioan sartu eta abestiak egiten igaro zenuen gaua. Nola oroitzen duzu hura?
 Lehenik, garai hartan Euskal Herrian gertatu zena komentatu nahi dut. Gogorra izanagatik, ez da ezer berezia, historian

behin eta berriro errepikatzen diren ziklo unibertsalei erantzuten die. Gizakiak batzuetan asmatzen du eta besteetan ez. Irekia denak akatsa onartzen du, hobetzen du, eboluzionatzen du. Astazakilek ez. Eta horiek bihurtzen direnean gehien-go, edo lortzen dutenean gainontzekoak manipulatzeari, hasten dira hondamendi kolektiboak. Planetako toki askotan ari da gertatzen egun. Sortzean arrazoizkoak eta inspiratzaileak diren mugimenduek batzuetan gradualki ixten dute beren begirada, eta amaitzen dute zoritxarreko hondamendi izaten. Zentzugabekeriaren espiralak dira, parean topatzen duten guztia txikitzen dute, eta azkenean beren burua ere bai, desagertzea kondenatutako erakunde bihurtuz. Urte askoren buruan iristen da ikuspegi kolektibo berri bat hura beste ertz batetik ikusten duena, eta orain ezin dugu ulertu gertatu zenik ere. Nola kontatu gure seme-alabei? Burutik jota geundela pentsatuko dute. Baina nork daki, agian hurrengo belaunaldiari egokituko zaio bere espiral zikin propioa, erabat inguratuko dituen eta zerbait arrunta balitz bezala biziko dutena. Ez dugu ikasten, behin eta berriro errepikatzen ditugu akatsak.

Hilketa baino aste batzuk lehenago hitz egin nuen berarekin Donostian, eta ordurako bazekien, gogaituta, azken neuronak utzi zuela ETAn bizitzari eta heriotzari buruzko erabakiak hartzen ziren mahaia. Hilko ote zuten beldur zen. Niretzat esajerazio izugarria zen. Astazakilak bai, baina hainbeste –eta hainbestekoak– ez. Ezagutzen nituela

iruditzen zitzaidan, eta halaxe esan nion. Baina egun gutxira frogatu nuen arrazoi zuela. Unean tristura eta amorrua sentitzen duzu, ez dakizu ondo zeren aurka. Izakia baino, unibertso osoa gaitzesten duzu, sentitzen duzulako kolpetik zure aurka altxa dela. Zure burbuilako kristala lurruntzen da, irudia desagertzen da eta hankek ez dizute kasurik egiten. Gau horretan sortu ziren *Yoyes 1986* diskoko sei abestiak, argirik gabe. IZ-ko *Kawai*-aren aurrean eseri eta grabatu, grabatu, grabatu... oso mantso, handik mugitu ezinik, eta mugitu nahi gabe. Dena segidan. Egun batzuren buruan zatirik onenak hautatu nituen, eta efektu zehatz batzuk gehitu nizkion base nagusiari.


Noiz utzi zenion abestiak egiteari?

Uste dut zerikusia duela denok daramagun bizitza gutxi gorabehera aspergarriarekin. 1993tik aurrera kanpora begiratzen hasi nintzen, eta albo batera utzi nuen nire aitonak hainbestetan aipatzen zidan barne begirada hura. Bankuari ordaindu behar nion, amaitu zen norberarentzako denbora. Azkarate estudioa

eraikitzen hasi nintzen Amaiarekin eta Jonan Ordorikarekin batera, soinuaren munduan maila profesionalagoan sartzen, biretan eta bidaietan klase guztietako ekitaldietako soinuaz arduratzen, eta lana bihurtu zen lehentasuna. Bitxia da: nahi nuen nire abestiak grabatzea inoren menpe egon gabe, eta, bai, artista askoren abestiak grabatu nituen, baina nireak ez ziren inoiz itzuli. Sormena ziurgabetasunetik gertu dago, eta 70eko eta 80ko hamarkada haiek erabat ziren ziurgabeak: ez zenekien biharamunean jango ote zenuen, atxilotu eta ibairen batean flotatzen aurkituko ote zintuzten, errusiarrek edota amerikarrek bonba atomikoa jaurtiko ote zuten... Bizi ginen familiakoak agurtuz. Lagunak preso zeramatzen, edo ihes egiten zuten, edo hil egiten ziren. Edozein unetan bizitza buka zitekeela pentsatzen genuen. Orduan, segurtasunaren mundura gerturatzen zarenean eta egunerokoak jaten zaituenean, sormenak begiratzen zaitu, esanez: "Banoa zu baino ezegonkorrago dagoen norbaiten bila". Nik hala bizi izan dut.

Ziurgabetasun garaia bizi ditugun honetan, agian une ona izan daiteke itzultzeko...

Agian konfinamenduak esnaraziko gaitu eta irudipen berriak ekarriko dizkigu, auskalo. Zonbi beldurti asko ikusten dut hortik zehar. Nik txikitzen jarraitzen dut. Egunotan estudioa trastez husten ari naiz, behin betiko. Azkaraten artistaz jositako hiru solairuetan egotetik pasako naiz logela txiki batera, ohe bat, ordenagailu eramangarria eta bozgorailuak dituen, eta neska txiki bat bere panpinekin. Ikusiko dugu ea hirurogeita gehiago urterekin sormenak harkor harapatzen nauen. Agian gerturatzen da lara urruntzean. Edo agian ez da inoiz itzuliko, eta ez da ezer gertatzen –gustura nago garai batean ekarri zidanarekin, eta jada ez dut ezer espero–. Bizitzak beti ematen dizkio sorpresak begirada irekita duenari, historia eta mundu zoragarri asko daude deskubritzeko, eta ni beti nabil zerbaiti bueltaka. Badaezpada arropategian gorde ditut kable batzuk, teklatura eta oraindik soinua ateratzen duten tramankulu batzuk. ●





LIBURUA

Emakumeen odola



LARRY D. MOORE

NESKAMEAREN IPUINA

EGILEA: MARGARET ATWOOD
ITZULTZAILEA: ZIGOR GARRO

TXALAPARTA 2020

AMAIA ALVAREZ URIA

Margaret Atwoodek 1985ean argitaratu zuen distopia honek gogorarazten digu feminismoak lortutako aitzinamendu bakoitza erraz galdu daitekeela. Freden ezizenez ezagutzen dugun protagonistak bere istorioa kontatuko digu: komandantearen eta bere emaztearen etxean bizi den neskamea da, eta bere betebeharrak haientzat haurdun geratzea da, hilean behin hirurek egiten duten *Zeremonian*.

Distopia honetan ez-desiragarria eta beldurgarria den etorkizuna deskribatzen zaigu: diktadura totalitario militar-kristaua, hondamendi ekologiko baten ondoren gehienak antzutu direnean. Emakumeak (Komandanteen Emazteak, haien Alabak, Neskameak, Marta deituriko etxeko langileak eta Ekonoemazteak deituriko langile klasekoak) eta Ezema-

kumeak (zaharrak, antzuak, feministak, lesbianak, arau-urratzaileak eta genero-arauak betetzen ez dituzten gizonak) daude.

Eskuin muturreko alderdien gorakada, abortuaren kontrako legeak, haurdunaldi subrogatuaren legeztatzea, lurra-aren ustiaketa neoliberala, pandemia eta eskubideen murrizketa... Argi dago ez duela gaurkotasunik galdu eleberri honen. Izan ere, fikzio espekulatiboa dela dio bere egileak (Lurrean kokatutakoa, benetan gerta litekeena, errealitatean oinarritutako fikzioa).

2017an estreinatu zen telesailak egin du ezagun liburu hau Zigor Garrok kartzelan zegoela itzuli zuen eta Txalapartak 2020an argitaratu. Eragin handia izan du, adibidez, Trumpen kontrako eta abortatzeko eskubidearen aldeko ma-

nifestazioetan, AEBetan eta Argentinan. Gainera, 2019an *Testamentuak* eleberria argitaratu zuen Atwoodek jarraipen gisa.

Zapalkuntza eta erresistentzia, flashbackak aurreko bizimoduaren kritika eginez (80ko hamarkadako Ipar Amerikakoa), eta protagonistak bizi duen esklabutza inguruko gogoetak agertzen zaizkigu. Hala ere, badu alderdi positiborik: emakumeen arteko elkartasuna edo sororitatea, eta jakintza femeninoen balioespina (zientzia domestikoa).

Neskameen uniformeko buru-estalkiak ikusezin bihurtzen ditu eta soinekoa gorria da: hileko, ugalkortasun, sexu, bekatu, arrisku eta biolentziaren sinboloa. Istorio honek, liburuaren azaleko erdiko irudiak nola, horren azpian dagoe-na agerian uzten digu, historia bestela eraiki dezagun. ●



MUSIKA

Califato 3/4: Andalucía e una potencia ehtraterrehre



LA CONTRAÇEÑA

CALIFATO 3/4

BREAKING BASS RECORDS

XALBA RAMIREZ

Folklore futurista egiten dutela esan dute nonbaiten. Jungle, drum n bass, break beat, hip-hop, dom-bap eta nahi diren elektronika estiloak nahasten dituzte koplak, seguidilla, erromantze judeokristau eta andaluziar tradizio(et)an topatuko ditugun musikekin. Izan ere, euren manifestuan aldarrikatu bezala, (talderik ez manifestu gabe!), Andaluziaren historiari ezabatu diren ijito, moro eta beltzak bertara ekarri nahi dituzte, berezkoak dituzten 3/4, 6/8 eta 12/8 konpasen sormena garatuz.

Califato tres por cuatro. Errima eta erritmo andaluziarra, Al-Andalusen garai loriatsuak eta jendearekin eta jendeaz barre egiteko gogoak nahasten ditu proiektuak izenetik. Zuzeneko bideoak ikusi besterik ez dago, jakiteko katxondeo dosi itzela duela proiektu interesgarri horrek.

Camarón de la Islaren *La leyenda del tiempo*-n bezala, udako egonaldi musikal batean sortu zen taldearen kimua izango zen *L'ambôccá* (2018) EP-a. Ondoren etorriko zen lehen lan luze zoragarria: *Puerta de la Câne* (2019). Orain Andaluziaren egunean kaleratu duten *La Contraçeña* (2020, Breaking Bass Records) etorri da.

Indios der çur-ekin hasten da hirugarren lan hau, deklarazio printzipio moduan. *Te quiero y lo çabe* kanta udako txiringitoetarako aproposena da. Western ukitua duen koplak da *Çambra der Huebê Çanto Mad Max* eta *Brianen Bizitza* estiloko bideokliparekin: “*Mi madre está to’ el día rezando / ella es cristiana, mora y judía / su nombre es Andalucía*”.

Herri kulturaren sustraiak arakatzetik dator lan hau, baina puritanismotik

eta zuzentasunetik oso urrun. Hain zuzen, hori da tradizioetara gerturatzeko manera bakarra: orduan ziren pasio eta molde berak erabiltzea gaur eta hemen; eta ulertu eta errespetatzeaz harago, moldatzea, apurtzea eta berriz iruditzea. Bide hori egiten ari dira Califato-koez gain, Della Fuente, Queralt Lahoz edo Taifa Yallah, adibidez.

Rave eta Sound System kulturak ematen duen txoro haizearekin, surrealismo puntu batekin eta herri kulturarekiko miresmen eta loturarekin iruditeria berriak sortu dituzte Andaluzian. Egungo moldeak irauli dituzte, musika talde baten marketin eta karrera baino zerbaite gehiago eskaini diezaion orainari. Andaluzia potentzia estralurtar gisa aldarrikatu da, euskalduntasun martzianoa antolatuko al dugu? ●



Serrulla, etxean bezala antzokian

XALBA RAMIREZ VICENTE SERRULLA

Iñigo Serrulla donostiarra bakarrik taularatu da berriz ere, Donostiako Antzoki Zaharrean, aspaldiko par-
tez. Banda izugarri konpaktu batekin aurkeztu zuen duela hiru urte *1/4 Life* lana (Airaka, 2019). Orain ordea, elektronika lagun, aipatu laneko kanten moldaketa intimistagoak aurkeztu ditu eta datorren lanean aurkituko ditugun berri -harrigarri- batzuk.

Serrullak ez du oihartzun handiegirik izan gurean -tira, ezta beste inon ere- baina bere talentuak ez du besteen onarpenik behar. R&B modernotik gertu, lo-fi eta bedroom pop gisa ezagutzen denaren inguruan intentsitate maila ugari ematen ditu, beti ere emozioak neurtuz eta ekoizpenean "gutxiago gehiago da" printzipioari jarraituz.

Bere etxeko logela irudikatu du, igerrilekuko txankletak jantzita, gatzeko lanpara piztuta, hainbat liburu iskinean eta ukitu ere egin ez duen gitarra akus-

tikoa. Aurikularrak buruan, bere azken urteotako konposatzeko prozesua erakusten ari dela dirudi, bera hobeto ezagutzeko aukera eskaini nahi balu bezala.

Kanta berri batekin ireki du saioa, gitarrarekin bakarrik, kontzertuaren une intimoenarekin lotuz publikoa. Aurretik zean loop eta sampleen gainean eraikiko du emanaldia. Frank Ocean eta Sen Senra ditut gogoan, eta bistan da erreferentzia zuzena direla. Oceanen bertsioa egin du Gartxot Unsainekin, iazko konfinamenduaren emaitza ederretako bat.

Bertsio hori eta Txomin Artolaren *Itsasoan* kanta himnotiko eta epikoa izan dira kontzertuko une gorenak. Azken hau bereziki. Aitor Etxeberriak egindako *Boga-Bogaren* moldaketaren antzekoa izan da hasiera, lanbrozko sintetizagailuen gainean eraikiz melodia, eta gora eta gora egin du autotunearen laguntzaz

IÑIGO SERRULLA

NOIZ: maiatzak 8

NON: Donostiako Antzoki Zaharra

Bon Iverrek sortzen dituen klimaxak lortuz. Aurtun zuzenekoan ikusi dudak kan-
tetatik gehien hunkitu nauena, azal eta mami.

Ez da kasualitatea bi abesti horiek izatea gehien iritsi zaizkidanak, gainontzekoak ez ditut ulertzen, ingelesez direlako. Sentsazioa daukat kantaren %40 galtzen ari naizela. Eta pena ematen dit izugarritzko kalitate eta zorrozatasuna ematen dituelako Serrullak kanta bakoitzean. Hurrengoan azpiztituluak edo bertso paperak eskatuko dizkiot eta saiaturko naiz soilik azalean ez geratzen.

Talentua saritzea merkea iruditu zait beti. Atentzio gehiago ematen dinate beste faktoreek. Serrullak talentu bikoitza erakusten du eta gehiegikeriarik gabe erakusten du kantagile eta interprete bikaina dela. Umiltasun hori ere saritzen da. Bidea zintzo aukeratzenean, eramaten zaituen lekua ederra izaten delako. ●



Hitz gezidunak

* Gaia: Bizkaiko ibaiak

ETA ABAR (LABURDU- RA) UTIKAN!	GAIA, MATERIALA NAFARROAKO HERRIA	ZAPARRADA, ERAUNTSIA	2000 ERROMATAR ZENBAKIZ SINDIKATU ABERTZALEA	KONTSONAN- TE ERREPIKA- TUTA ÄRRESKE	ARGI-IZPI *	KANABEREN LASTOA DANBOLIN, TUNTUN	
		ITSAS ARMADAKO BURUZAGI EUSKAL FONEMA					
ZIKINA, LIZUNA *				LURRA GARBITZEKO TRESNA ÄNPEREA			
					TRUKE NAIZEN HAU		
*	HERRI HIZKERAN, BADA *				SODIOAREN IKURRA NORBAITI AXOLA DIONA		
		*			INFORMAZIO UNITATE BURUSIA, TAPAKIA		ODOLAHU- LEZIA
DENBORA, SASOI 1500 ERROMATAR ZENBAKIZ							
	MEGA IRUZUR, EN- GAINU				HITZARMEN, AKORDIO MUGATUTAKO DENBORA- BITARTE		
BARAZKI HOSTOTSUA EGUNEROKO JANGAI		PERUKO HIRIBURUA LUTEZIOAREN IKURRA	NEPTU- NIOAREN IKURRA ZUHAUR	ENERGIA KAIKU, KIRTEN	NIRE EUSKARAREN GAITASUN ÄGIRIA		
	PAPER LATZA HERRI HIZKERAN, ETA					METROA DAUKA	
URTEAN SORTUTAKO ADAR FESTA			LEGEEN MULTZO TONA				
		SOLAS-GAIA, ESAMESA			*		

Sudokua


BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		4		5		2	
2						6	
	9	6	8			4	
				9		7	3
			5	4	7		
8		9		3			
	6				1	9	7
		7					5
	2			6		1	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Tzerriei ematen zaien janari.
2. Gau ona opa izateko.
3. Gizonezkoentzako monasterio bateko buru.
4. Gizena.
5. Nireak.



EBAZPENAK

1. OGALDE
2. GABON
3. ABABE
4. LODIA
5. ENAK

5X5:

4	3	4	1	5	6	7	8	2	9
5	2	2	3	8	6	8	7	1	4
8	7	6	1	3	6	4	5	2	5
1	3	2	5	4	7	8	9	6	6
6	4	5	2	8	8	7	1	3	9
3	8	1	2	5	4	7	6	6	3
2	5	1	3	7	4	6	8	9	2
7	8	4	6	5	9	3	2	1	1

V	A	S	V	U	T	U	V	V	I	V	I
I	D	E	G	E	T	E	M	U	T	R	U
M	R	P	A	P	A	L	I	Z	I	C	O
E	N	E	E	N	L	V	Z	V			
N	U	T	I			M	D	D	M		
V	T	N	V	M		O	R	V			
T	I	B	I			V	K	O			
V	N	I	N			V	B				
K	U	J	R	T	V	B	V	Z	I	B	I
Z	T	V	R	E	V	S	J	V	H	V	
E	T	N	V	R	I	M	V	K	I	T	U
L	I	R	M	J	E						

Marta Bellvehí

ILUSTRATZAILEA



BETIDANIK MARRAZKILARI

“Txikia nintzenean etxean denbora anitz pasatzea gustuko nuen: ahizpa sei urte nituenean jaio zen eta lehengusurik ez nuenez, ohituta nengoen bakarrik ongi pasatzera. Gurasoek aurki ikusi zuten marraztea maite nuela eta plastikan apuntatu ninduten eskolaz kanpo. Gogoratzen dut arbel magnetiko bat ere erosi zidatela eta edonora eramaten nuela: orain ilustrazio digitalak egiteko erabiltzen dudana iPad-aren bertsio primitiboa zen hura. Eskolan egiten ziren marrazki lehiaketak irabazten hasi nintzen eta jendeak erraten zuen hori izango zela nire ogibidea. Egia erran, nik nire burua ere handitan ipuinak marrazten ikusten nuen”.

“Hemendik hilabete batzuetara zertan lan egingen dudan ez jakitea gustatzen zait”

Bartzelonako Unibertsitatean diseinu grafiko ikasketak egin ondotik ilustrazio graduondokoa egin zuen Marta Bellvehí (Palamós, Katalunia, 1989). Ilustratzaile gisa *Enderrock* aldizkarian debutatu zuen eta 2014az geroztik bere proiektu propioan dihardu buru-belarri.

 SAIOA BALEZTENA  LAURA GARCIA

Zer da zure ogibideaz gehien maite duzuna?

Nire erritmoaren arabera egunero-kotasuna kudeatzeko dudana askatasuna. Enpresetan lan egiten nuen gorroto nuen ordutegi zehatz bat bete behar izatea. Zenbaitetan ez zegoen ezer egiteko eta aulkia berotu behar izaten nuen zazpiak iritsi arte. Izugarria zen denbora lapurtzen ari zitzaidakala sentitzea! *Free-lance* moduan lan egiten dudanez geroztik balio handiagoa ematen diot nire lanari. Era berean, ilustratzaile gisa lan egiteak proiektu desberdinetan murgiltzeko aukera ematen dit. Gustatzen zait hemendik hilabete batzuetara zertan lan egingen dudana ez jakitea.

Krisiak eztanda egin zuen ikasten ari zintenean. Nola eragin zizun?

Egia erran, ikasten ari nintzen bitartean ez nuen kezka gehiegirik izan, zorionez gurasoen babes ekonomikoa nuelako. Baina egia da azken ikasturtea bukatzeaz geroztik hutsunea sentitu nuela. Ez hainbertze nire ogibideagatik, ziurgabetasun bera baitzuten bertze ikasketak egi-

ten zituzten lagunek ere. Nolabait onartu genuen denbora mugagabea gurea ez zen ogibideren batean lan egin beharko genuela, aukeraren bat iritsi arte. Lagunen erdiak kanpora joan ziren bizitzera eta ni ilustrazio graduondokoa ikasi bitartean hainbat enpresatan bekadun gisa aritu nintzen, kontratu mugatuen bitartez diseinatzaile gisa lanean hasi nintzen arte.

Duela sei urte abiatu zuen zure proiektu propioa. Zaila izan zen?

Tira, zertxobait aurreztua nuen eta hasierako hilabeteetan gutxi kobratzeak ez ninduen beldurtzen. Enkarguzko erretratuak egin nituen hasieran, baina kontaktuak falta zitzaidakidan eta galduta sentitzen nintzen. Zaila egiten zitzaidan lan bolumena aurreikustea, proiektu bakoitzagatik zenbat kobratu behar nuen jakitea eta ziurgabetasuna kudeatzea. Eta bai, autonomoen tarifa hilabetero ordaintzea eutsiezi-na zen. Zorionez, proiektu berriak suertatu ziren eta geroztik ilustratzaile gisa lan egin ahal izan dut.

"Bertze artisten lana ikusteak lagundu zidan kontzientzia feminista hartzen".



Zein paper jokatu dute sare sozialak zure ibilbidean?

Anitz erabiltzen ditut, batez ere *Instagram*. Nire lanaren erakusleioa da eta, era berean, inspiratzeko eta gainontzeko ilustratzaileek egiten dutenaz informatzeko erabiltzen dut. Hori bai, okerrera da konparazioetan sartzea eta garrantzitsua da tarteka distantzia hartzea. Bertze ilustratzaile batzuekin ere solastatu izan naiz edukiak etengabe sortu behar izateak eragiten duen estresaz. Baliteke liburu bat prestatzen aritzea, ilustrazio pila egiten, baina *Instagramen* edukirik publikatzeko tarterik ez baduzu ez zara horren ikusgarri.

Zure ilustrazioek berezko zigilua dute. Zerk inspiratzen zaitu?

Artista oso desberdinak jarraitzen ditut, paisaien argazkiak egiten ditut eta gusatzzen zaizkidan gauzen pantaila-irudiak gordetzen ditut. Sarri marrazkiak nire sentimendu batetik edo sentitu dudana moduan adierazi nahi izan dudana bizitako esperientzia batetik sortzen dira. Askotariko pertsonen adierazpenak marraztea maite dut, batez ere emakumeenak, eta elementu naturalekin konbinatzea.

Bi pasio uztartzen dituzu, ilustrazioa eta musika, abestiei bizia emanez.

Dibuixar Cançons (Abestiak marraztu) proiektua abiatu nuen ikasten ari nintzenean. Blog bat ireki eta estilo desberdinekin esperimentatzea ahalbidetuko zidan ilustrazio serie bat publikatzea erabaki nuen. Musika talde anitz entzuten nituen garai hartan eta abestiak interpretatzeko modu polita iruditu zitzaidan. Katalanez eginiko musikaren aldarrikapena egiteko modua ere izan zen niretzat. 2013an *Enderrok* aldizkariarekin kolaboratzen hasi nintzen, eta borts urtez hilabeteen ilustrazio bat publikatu nuen bertan. Herrialde Katalanetan izen bereko ikastaroa irakatsi izan dut, batez ere gazteekin. Eta horretaz aparte bi pasio horiek uztartu ahal izan ditut Cesk Freixas, Andrés Suarez eta Hesian taldearekin lan eginez.

Noiztik dago presente borroka feminista zure obran?

Duela zazpi edo zortzi urte edertasun normatiboa zuten emakumeak marrazten nituen: argalak, ile luzea... eta maitasuna gizon eta emakume cisen bi-

tartez adierazten nuen. Bertze artisten lana ikusteak lagundu zidan kontzientzia feminista hartu eta normalizatu nituen hainbat jarrerekin kritikoa izaten. Horrela hasi nintzen bertze errealitateak marrazten. Ikastaroa ere egokitu nuen, ikuspuntu feministatik egiteko. Indarkeria matxistaren kontrako hainbat kanpainetan ere muralak egiten parte hartu dut.

Noizbait irakurri dut erran duzula emakumea izateagatik harreman profesional paternalistak pairatu dituzula.

Batez ere gazteagoa nintzenean. Publizitate agentzia batean lanean aritu nintzen eta bertan emakume bakarrak bekadunak edo juniorrak ziren: txantxetan, aipamenetan eta zuzendarien jarreretan maskulinitate toxikoa zen nagusi. Eta nire ibilbide propioa abiatu nuenean ere, lehen enkarguetan batez ere, presionatuta sentitu nintzen eta nire esperientzia faltaz baliatu ziren miseria bat ordaintzeko. Edo muralak marraztean eta azoka zein ferietan parte hartu dudanean komentario desegokiak entzun izan ditut maiz. Zorionez ez da ohikoena. ●



BERANDUEGI
KRONIKA SERIOSA EGITEKO



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

Julen Telleria da EH Bilduko lehendakari berria, gehiengoaren gustukoa bihurtzeko



Telleria, gehiengoak entzuteko betaurrekoekin.

“EH Bildu jendearen gehiengoari gus-tatzea lortu behar dugu, eta ez soilik bere senide eta lagunei”, adierazi du Telleria anaietan graziosoa izan nahi duenak ez, besteak. “Eta nik badaukat horretarako formula. Kontua da mundu osoak entzun nahi dituen gauzak zeintzuk diren nik badakidala, eta orduan, gau eta egun horiek etengabe errepikatuz, mundua tope alda dezakegula”. Koalizioa oinarrietatik aldatzera dator Julen, bera bezala ETBren faktoriatik atera zen Maddalen Iriartek gazteen konektatzea lortu ez duela ikusita. “EH Bildu, EA, Sortu, Ernai, Ikama, Gure Esku, Gazte Abertzaleak, Gatibu... Ez ez ez, aniztasun handiegia sumatzen dut inguruan. Interes orokorraren ize-nean, egin behar duguna da sinplifika-tu. Ni horren adibide. Begira EAjri. EAj dago, EGI, ETB, Miren Larrion, Athletic eta punto. Guk egin behar duguna lehiakideek egiten duten gauza bera, gu ez ginen erresistitzeko jaio, irabazteko baizik. Baietz 100.000 bozka baino gehiago lortu!”. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Askatasuna



Xa bia / Facebook

Irungo eraso euskarafoboari aurre egiteko txostena prestatzen ari da euskalgintza



Tabernak irekitzeko agindua eman zuen Peter Griffin aka ‘Luis Angel Garrido’ epaileak orain esan du Irungo munipek euskara jakin behar izatea diskriminatzailea dela. Eraso bortitziari erantzuteko prozesua abiatzeko oinarriak erabakitze txostena idazten ari da tinko eta irmo euskalgintza. Elkarlana izango du oinarri. Horretarako, Pringen Zuziria sailburuak jaki-

narazi ditu txostena egikaritzeko diru-laguntza deialdirako eskakizunak. Jaurlaritzaren baldintzetako bat izango da txostena euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez aurkeztea. Euskalgintza gaiztoak, aldiz, “hitzetatik ekintzetara pasatzeko oreina” dela adierazi du. Horregatik, larunbaterako bertso-pintxo-poteo isila antolatatu du Mosku plazan, Skype bidez. ●



19,5 €

%100 kotoi
organikoa



Kolore berriak!

Bost kolore aukeran:
Urdina, beixa, arrosa, berdea eta grisa.

Lurra herriari deika

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin,
nekazaritza eta gizarte eredu bat bultzatzen
ari gara. Beraz, jatea bihur dezagun egunean
hiru bider egiten dugun plazerezko iraultza!

Erosteako: argia.eus/azoka 943 37 15 45

Agroekologia mugimendua
eta  **ARGIA** elkarlanean

Kamiseta erosita, 2 €-ko ekarpena egingo
dizu **agroekologia mugimenduari**
eta beste hainbestekoa ARGIAri.

ZIBURUKO 2.EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

EKAINAREN 12AN
10:00-20:00

HERRIKO PLAZAN



ANTOLATZAILE



PARTAIDE

